



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko otsailaren 12a

26. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina (31. or.).
- Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ko kontseilari delegatuaren eskaera (54. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Helburua (6. or.).

III. Norainokoa (7. or.).

IV. 2012ko kontu orokorrari buruzko iritzia (8. or.).

IV.1. Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra (8. or.).

IV.2. Legezkotasuna (8. or.).

IV.3. Udalaren 2012ko egoera ekonomiko-finantzarioa (8. or.).

IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (12. or.).

V. Udalaren 2012ko kontu orokorraren laburpena (13. or.).

V.1. 2012ko aurrekontuaren betetze-maila (13. or.).

V.2. 2012ko aurrekontu-emaizta (14. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2012ko abenduaren 31n (14. or.).

V.4. Egoera-balantze bateratua (Udala eta Andacelay, SL) (15. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua (Udala eta Andacelay, SL) (16. or.).

VI. Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (17. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak. (17. or.).

VI.2. Langileak. (18. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (20. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (21. or.).

VI.5. Inbertsioak (22. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (23. or.).

VI.7. Hirigintza (24. or.).

VI.8. Andacelay, SL sozietate publikoa (25. or.).

VI.9. Gestión y Promoción Egüés 21 SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II SL sozietate mistoak (26. or.).

I. gehigarria: "Gestión y Promoción Egüés 21, SA" sozietate mistoaren 2012ko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtuaren eta galeren eta irabazien kontu laburtuaren zirriborroa (27. or.).

II. gehigarria: "Gestión y Promoción Egüés 21-II SL" sozietate mistoaren 2012ko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtuaren eta galeren eta irabazien kontu laburtuaren zirriborroa (29. or.).

Eranskina: Udalaren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

www.cfn Navarra.es/camara.comptos).


I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Eguesibarko Udalaren eta haren menpeko enteen 2012ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Eguesibarko Udalak 53,57 km² ditu; Altuza, Ardanatz, Azpa, Badoztain, Egues, Elkano, Elia, Ibiriku, Olatz eta Sagasetako kontzejuek, Etxalatz, Amokain, Erantsus, Elizmendi eta Egulbatiko jaurerriek eta Uztarroze, Gorraitz eta Sarrigengoko herriguneez osatzen dute.

2012ko urtarrilaren 1ean, 17.450 biztanle dauzka; horietatik, ehuneko 85, gutxi gorabehera, Sarrigurenen eta Gorraitzen bizi dira. 2006tik, udalerriak hirukoiztu egin du bere biztanle-kopurua.

Udalaren eta haren menpeko erakundearen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2012ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Administrazio publikoaren sektorea:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2012-12-31n
Udala	8.571.403	7.808.597	

- Sozietate publikoak. 2004ko urrian, Udalak Andacelay, SL Udalaren hirigintza-sozietatea sortu zuen, bazkide bakarra Udala duela.

Sozietate honek ehuneko 51rekin hartzen du parte honako sozietate misto hauetan: “Gesti3n y Promoci3n Egües 21, SA” –2005ean sortu zen– eta “Gesti3n y Promoci3n Egües 21-II, SL” –2010ean sortu zen–. Bi sozietate horietan bazkide pribatu bera da.

Ondoren sozietatearen funtsezko datuak adierazten dira:

Enpresa publikoak	Diru-sarrerak	Gastuak	Langileak, 2012-12-31n	Ekitaldiko emaitzak	Epe luzearako zorra
Andacelay, S.L.	68.959	88.993	1	(20.034)	-
Gesti3n y Promoci3n Egües 21, SA	158.386	94.941	-	63.445	-
Gesti3n y Promoci3n Egües 21-II SL	15.195.203	13.506.506	-	1.688.697	5.985.343

Gestión y Promoción Egúés 21, SA Sozietateak, eratu zeneko xede soziala amaiturik, 2013ko apirilean likidatu zen.

Sozietate hauek udaletxean dute egoitza soziala.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Udalak, 2012an, honako ekarpenak egin dizkio mankomunitate horri:

Zerbitzuak	2012ko ekarpenak
Eskualdeko hiri-garraioa	237.005
Ibai-parkearen kudeaketa	41.936
Guztira	278.941

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan ageri direnak dira:

Udal Zerbitzuak	Udala	Merkataritza sozietate osoa	Mankomunitatea Partzuergoa	Zerbitzu-kontratuak	Errentamendua	Merkataritza sozietate mistoak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X					
Oinarritzko gizarte-zerbitzua	X					
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	X					
Genero indarkeriaren prebentzioa				X		
Lehen eta bigarren hezkuntzako hezkidetzak programak				X		
Atezaintza	X					
Berdintasun-zerbitzuak	X					
Tokiko enplegu- eta garapen-zerbitzuak	X					
Kirolak	X					
Kultura.	X					
Musika-eskola	X					
Hirigintza	X	X				X
Lorategiak	X			X		
Uraren ziklo integrala			X			
Hiri-hondakinak			X			
Garraio Publikoa			X			
Haur hezkuntzako zentroaren Zerbitzua, 0-3 urteko zikloa	X			X		
Udal eraikinen garbiketa eta mantentze-lanak				X		
Kale garbiketa				X		
Kirol-instalazioen funtzionamendua				X		
Kirol-instalazioetako taberna-jatetxearen kudeaketa					X	
Udal ludoteka	X			X		
Familia laguntzarako zentroa				X		
Udako hiri-kanpalekuaren kudeaketa	X			X		
Diru-bilketa exekutiboa	X			X		

Toki entitateari 2012ko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Orokorrak Nafarroako toki entitateetan aplikatzekoa dena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.

Urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege-dekretua, Enplegurako eta Toki Iraungarritasunerako Estatuko Funtsa sortu zuena

Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzkoa.

Ekainaren 29ko 2/2012 Legea, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

Uztailaren 13ko Errege Lege-dekretua, Aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoa.

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legea, Aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriak Nafarroako Foru Komunitaterako egokitzen dituena.

Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

Martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legea, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena.

Abenduaren 21eko 246/2011 Foru Dekretua, Kontratuei buruzko Foru Legearen Europar Batasuneko atalaseak eguneratzen dituena.

- Berariazko araubidea:

2012ko aurrekontuaren betetze-oinarriak.

Tributuak arautzen dituzten ordenantzak.

Diru-laguntzak emateari buruzko oinarri arautzaileak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, gure iritzia ematen dugu 2012ko kontu orokorrari buruz. Bosgarrenean, Udalaren egoera finantzario nagusien laburpena ematen dugu. Azkenik, seigarrenean, Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Informazio modura besterik ez bada ere, bi gehigarri erantsi ditugu, non Gestión y Promoción Egüés 21 SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II SL sozietate mistoen 2012ko urteko kontuen laburpena ematen baitugu. Eranskin gisa, 2012ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia ere ematen dugu.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legerekin eta Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Eguesibarko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Eguesibarko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak egoeraren irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraituz betiere.

- Eguesibarko Udalak 2012an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

- Udalaren finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n.

- Ganbera honek 2011ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

III. NORAINOKOA

Eguesibarko Udalaren 2012ko ekitaldiari buruzko kontu orokorrak honako elementu nagusiak biltzen ditu:

- Entitatearen beraren kontua: aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaiza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Andacelay, SL hirigintza sozietatearen urteko kontuak.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu-hartzaitzaren txostena eta kontu bateratua (Udala eta Andacelay, SL hirigintza sozietatea).

Zorren egoeran ez dira aipatzen udal-sozietateen kreditu-operazioak.

Sozietate mistoen urteko kontuak informazio osagarri gisa gehitzen dira Udalaren kontu orokorrari buruzko espedientean.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da lana, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa aplikatuz, besteren artean.

Zehazki, Udalerako, aurrekontuen eta finantzen egoera-orriak berrikusi dira, bai eta aplikatutako oinarrizko prozedurak ere, eta antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako oinarrizko alderdiak ere aztertu dira.

Andacelay SL sozietatearen 2012ko urteko kontuak direla eta, kanpoko auditoreek auditoretza finantzarioko txostena egin dute. Gestión y Promoción Egüés 21 SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II SL sozietateen 2012ko urteko kontuak, txosten hau egiteko garaian egin eta auditatu gabe bazeuden ere, txosteneko zirriborroan erantsi dira.

Nafarroako Parlamentuak Kontuen Ganberari eskatu zion bi txosten egin zitzaizkion: bata Andacelay Sozietate Publikoak lehentasunezko partaidetzak erosteari buruzkoa eta bestea Eguesibarko Udaleko sozietateek hirigintza eta kontratazio publikoa direla-eta egindako kudeaketari buruzkoa. Hori dela eta, alderdi horiei dagokienez, txosten horietara jo behar da.

IV. 2012ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren irismenari zegokion bezala, Eguesibarko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea eta kontuaren beraren edukia Udalaren ardura dira. Kontuaren laburpen-txosten honen V. atalean jaso da.

2011n, ikerketa batzorde bat sortu zen azken urteetan bai Udalak, bai haren sozietate publikoek egin dituzten kontratazio- eta kudeaketa-prozedura batzuk direla eta. Batzorde horren ondorioak Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zituen 2012ko maiatzean, eta ondorio horiek Agoizko Epaitegiari, fiskaltzari eta Foru Ogasunari helarazi zitzaizkien, jarduketa horietatik erator litezkeen erantzukizunak erabaki zitzaizkien.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. UDALAREN 2012ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Zalantza batzuk badaude ikerketa batzorde horrek aurrera eramane dituen jarduketak direla-eta Udalak nozi litzakeen ondorio ekonomikoei buruz.

Aurreko lerrokadan aipatutako zalantza horiek zertan bukatzen diren ezagututa doikuntzaren bat egin beharra izanez gero, doikuntza horrek zer eragin izanen duen kanpoan utzita, Udalaren 2012ko ekitaldiari dagokion kontu orokorrak zehazki jasotzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren irismenaren arabera, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, oro har, legezkotasun printzipioari jarraituz egin da; hala ere, langileriaren eta kontratazioaren arloetan, indarrean dagoen araudiaren ez-betetze batzuk aurkitu ditugu. Txosten honetako dagozkien ataletan komentatuko ditugu horiek.

IV.3. UDALAREN 2012ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 7,7 milioi euroko gastuak eta 8,6 milioi euroko diru-sarrerak dauzka; kopuru horiek, aurrekontu-aldaketan bitartez handitu dira: ehuneko 19 gastuen kasuan eta ehuneko 12 diru-sarreraren kasuan. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 9 eta 95 milioiokoak dira hurrenez hurren. 2011ko ekitaldiko aurrekontua 2012ko ekitaldirako luzatu zen.

Aldaketa, kreditu-gerakinen gehikuntzei, kreditu bereziei eta kreditu-osagarriei dagozkie, nagusiki langile-gastuen, inbertsio errealeen eta ondasun arruntak eta zerbitzuak ataletako kontusailak handitzeko egindakoak; halaber, goranzko doikuntzak egin dira, 0,45 milioi euro egiten dutenak, 2011ko aurrekontu luzatutik lortutako tartetik, 270/1998 Foru Dekretuko 23. artikulua aurreikusten duen bezala.

Aitortutako betebeharrak 8,6 milioi euro egiten dute, eta haien betetze orokorra ehuneko 95ekoa da. Kapitulu guztiak nahiko homogeneoak dira betetzeari dagokionez.

Aitortutako eskubideek 7,8 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila % 82koa izan da. Zeharkako zergen, ondare bidezko diru-sarreraren, inbertsioen besterentzeen eta kapital-transferentzien kapituluek betetze-maila txikia dute, zeren eta 2012an ez baitira behar diren aurrekontu aldaketak egin kapitulu horietako aurrekontu luzatua errealtatearen arabera egokitzeko.

Gastuen izaerari begiratuz gero, gastu arruntek eta kapital-gastuek gastu guztien ehuneko 95 eta ehuneko 5 egiten dute, hurrenez hurren. Diru-sarrerak arruntak guztizkoaren ehuneko 99 dira; diru-sarreraren ehuneko 43, berriz, jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 42 transferentzia arruntetatik eta ehuneko 1 kapital-transferentzietatik).

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili diren eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Langileak.	45	Zergen bidezko diru-sarrerak	56
Bestelako gastu arruntak	50	Transferentziak	43
Kapital gastuak	5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	1
	100		100

Hona Udalaren 2012rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2011tik izan duen bilakaerari buruzko datu ekonomikoak:

	2011	2012	Aldea, portzentajea 2012/2011
Aitortutako betebeharrak, guztira	9.903.183	8.571.403	-13
Likidatutako eskubideak, guztira	8.219.056	7.808.597	-5
Gastu-betetzearen ehunekoa	98	95	-3
Diru-sarreraren betetzearen ehunekoa	82	82	0
Ordainketen ehunekoa	90	89	-1
Kobrانتzen ehunekoa	93	93	0
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	8.086.725	8.119.680	0
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	8.086.725	8.119.542	0
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	1.526.134	451.723	-70
Finantza eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	290.324	0	-100
Diru-sarrerak arruntak (1. kapitulutik 5.era)	8.002.382	7.676.529	-4
Zerga bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3ra)	4.664.294	4.394.048	-6
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6. kapitulutik 9.era)	216.674	132.068	-39
Diru-laguntzen menpekotasunaren ehunekoa	42	43	6
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	58	54	
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-1.393.802	-762.806	-6
Aurrekontu-emaizta doituak	-672.658	-100.367	-85
Aurrezpen gordina	-84.342	-443.151	-425
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	290.324	0	-100
Aurrezki garbia	-374.667	-443.151	-18
Zorpetze-mailaren ehunekoa	3,63	0	-100
Zorpetzearen mugaren ehunekoa	-1,05	-5,77	-448
Zorpetze-ahalmenaren ehunekoa	-4,68	-5,77	-23
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.477.839	668.178	-55
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.477.839	668.178	-55
Udalaren zor bizia	0	0	0

2012an, Udalak ehuneko 13 gutxiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 5 txikiagoak izan ditu. Aitortutako betebeharren gutxitzea sortu da, funtsean, inbertsio errealak 800.000 eurotan eta kapital-transferentziak 300.000 eurotan gutxitu izatetik.

Diru-sarrerei dagokienez, beherapena ez da hain handia izan. Gehien jaisten den kapitulua zeharkako zergena da, 600.000 euro gutxiago baititu. Beherapena hein batean konpentsatu da zuzeneko zergen kapituluak gora egin izatearekin –500.000 euro gora, hain zuzen–.

Gastu arruntak ia ez dira aldatu; diru-sarrera arruntetan, aldiz, ehuneko 4ko jaitsiera izan da. Beherapen hori gertatu da, funtsean, zeharkako zergen bilketak behera egin duelako.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa 800.000 euro negatiboa da; 2011n ere negatiboa zen, 1,4 milioi negatiboa hain zuzen. Saldo horrek erakusten digu diru-sarrera ez-finantzarioak ez direla nahikoak izaera bereko gastuak finantzatzeko.

Ekitaldia ixtean, aurrekontuko emaitza bateratu doitua 100.000 euroko defizita izan da. 2011n, emaitza horretan, 673.000 euroko defizita ageri zen.

Bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak okerrera egin dute 2011koekin alderatuta, eta biek negatiboa izaten jarraitzen dute.

Diruzaintzako guztizko gerakina 700.000 eurokoa da; 2011n, berriz, 1,5 milioikoa izan zen. Bi urteetan gerakina gastu orokorretarako erabili izan da.

Udalaren eta Andacelay, SL udal-sozietatearen balantze bateratuko eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak 5,4 milioi eurokoak ziren 2012ko abenduaren 31n (5,4 milioi euro 2011n).

2012ko abenduaren 31n, Udalak ez zuen zorrik.

Honakoa izan da aurrekontuaren betetzea 2006ko ekitalditik hasi eta 2012ra arte:

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Azalpena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Langileria-gastuak	2.529.715	2.902.914	3.179.843	3.531.622	3.646.363	3.836.810	3.860.347
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	2.048.851	2.510.660	2.836.870	2.752.678	2.895.451	3.548.193	3.568.781
3. Gastu finantzarioak	108	15	0	0	238	0	138
4. Transferentzia arruntak	495.138	502.124	588.296	581.507	766.975	701.722	690.415
6. Inbertsio errealak	4.605.664	6.250.449	2.243.488	1.601.128	2.604.820	1.221.552	428.141
7. Kapital-transferentziak	7.173	21.028	8.917	4.949	8.551	304.582	23.582
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	360.607	370.890	360.607	360.607	420.607	0	0
Guztira	10.047.256	12.558.080	9.218.022	8.832.491	10.343.05	9.903.183	8.571.403

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Azalpena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Zuzeneko zergak	1.403.465	1.626.838	1.917.280	2.515.443	2.612.630	2.469.072	2.929.816
2. Zeharkako zergak	10.239.250	4.622.638	1.269.407	1.063.717	1.631.306	808.142	213.549
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.294.329	1.070.383	1.063.166	1.125.931	1.379.449	1.387.080	1.250.683
4. Transferentzia arruntak	1.465.831	1.754.000	2.101.282	2.396.374	2.693.349	3.116.127	3.241.973
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	109.507	215.880	191.703	74.662	318.813	221.962	40.508
6. Inbertsio errealen besterentzea	3.270.588	0	2.500	0	200	0	20.000
7. Kapital-transferentziak	284.501	96.009	187.506	1.438.751	1.018.119	216.674	112.068
9. Finantza-pasiboak	600	674	0	0	0	0	0
Guztira	18.068.071	9.386.422	6.372.844	8.614.879	9.653.865	8.219.056	7.808.597

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, Sarrigurengo hirigintza-garapenari esker, Udalak 2006an eta 2007an diru-sarrera handiak izan zituen, lursailen salmenta eta EIOZa zirela eta. Garapen horrek berarekin ekarri zuen biztanle-kopurua asko handitzea, halako moduz non hurrengo ekitaldian udaletxe berria, ikastetxeak, osasun etxeak, kirol hiria eta abarrekoak jarri baitziren. Udalaren erakin berri horiek, bai eta biztanleriaren handitzeak eta udalerraren zabalerak ere, beraiekin ekarri zuten zerbitzuak kontratatu behar izatea haiek funtzionamenduan edukitzeko, eta horrek nabarmen handitu zuen ondasun arruntengatiko eta zerbitzuengatiko gastua.

Biztanleriaren handitzeak berarekin ekarri zuen, halaber, zuzeneko zergen eta tasen bilketa handitzea, bai eta toki ogasunen funtsetik heldutako transferentzia arruntak ere.

Taulan ikusten da, halaber, desoreka bat egon dela, gutxienez ere azkeneko bi ekitaldian, diru-sarreraren eta gastu arruntaren artean, eta desoreka hori konpentsatu dela hirigintza jarduketetatik heldutako diru-sarrerekin, arestian aipatutakoekin, halakoak izan diren ekitaldian. Diru-sarrera horiek gabe, berriz ere desoreka bat agertzen da, zeinak aurrekontu-emaitza negatiboa eta diruzaintza-gerakinaren etengabeko gutxitzea baitakartza.

Laburbilduz, Udalaren egoera finantzarioaren ezaugarria da diruzaintza-gerakin positiboa duela, aurreko ekitaldian garatutako hirigintza-jarduerak sortua. Alabaina krisi ekonomikoko egoera okerrera eramaten ari da magnitude finantzarioak, eta horrek ekarri du diru-sarrera arruntak ez izatea emandako zerbitzuen funtzionamendu-gastuak finantzatzeko behar adinakoak; gainera, kapitaleko eragiketen zati handi bat diruzaintza-gerakinarekin finantzatu behar izan dira, eta horixe da magnitude horrek ehuneko 55 behera egitearen arrazoia. Epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatuko bada, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntaren sorrera handitzeko aukera emanen diotenak.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak betetzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak bi informazio-ohar eman ditu, horietatik bi 2013an, egonkortasunari buruzko araudiaren alderdi zehatz batzuk garatze aldera.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren betetzea kalkulatu da Toki Korporazioei egokitutako Kontabilitate Nazionalaren Defizita Kalkulatzeko eskuliburua aplikatuz –eskuliburu hori Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiak egindakoa da–. Emaitza hurrengo taulan azaltzen da:

Kontzeptua	Kopurua
Gastu guztiak, I. kapitulutik VII. kapitulura	8.571.403
Diru-sarrera guztiak, I. kapitulutik VII. kapitulura	7.808.597
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	-762.806
Aitortzeko dauden fakturen doikuntza	0
Zergengatiko doikuntza	-146.805
Finantzaketa beharra	-909.611

Ikusten da Eguesibarko Udalak ez dituela betetzen aurrekontu-egonkortasunerako baldintzak, zeren eta finantzaketa behar baitu; bai betetzen ditu, ordea, finantza-iraunkortasunari buruzkoak, zeren eta zorra deuseza baita. Nabarmendu behar da beharizan horiek diruzaintza-gerakinarekin finantzatzen direla.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabilera garrantzitsua izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honek 2011ko ekitaldiari buruz emandako txostenari dagokionez:

1. Honako gomendio garrantzitsuak ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Gestión y Promoción Egües 21, SA* sozietate mistoa likidatu da, etxebizitzaren sustapena amaitu ondoren.

- *Udalak diseinatu eta aplikatu ditu Udalaren kapitaleko sozietateei, jarduera orotan, ezarri beharreko finantza- eta egonkortasun-kontrolerako prozedura juridiko eta teknikoak, bereziki 2012ko abendutik Udalaren hirigintza-sozietaterako gerente bat kontratatu ondoren.*

2. Oraindik betetzeko daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek, besteak beste:

- *Kontu orokorra indarrean dagoen legediak ezartzen duen epearen barruan onartzea.*

- *Udalak bere antolamendua erabakitzeko ahalmena eta hirigintza kudeaketako egokien irizten dion modua hautatzeko autonomia gorabehera, jarduera hori hirigintza-sozietateen bidez kudeatzeko egungo modua, eta kudeaketa modu hori Udalak bilatu beharreko interes publikoari ongi egokitzen zaion aztertzea.*

- *Udalak bizi izan duen populazio-igoera dela-eta, gaur egungo zerbitzuak ematearen ondorioz nahiz inbertsio berrien ondorioz aldaketa horrek izanen duen eragina balioestea.*

- *Dokumentazioa kudeatzeko eta artxibatzeko prozedura eraginkorrak ezartzea, eta dokumentazio osoa artxibatzeko artxibo orokor bat sortzeko aukera aztertzea.*

- *Administrazioko alor bakoitzeko arduradunek, espedienteak eta egin beharreko jarduerak direla-eta araudi indardunak eskatzen duen dokumentazioa behar bezala betetzen dela ikuskatzea.*

- *Kontratazio arloko araudi indardunean ezarritakoa betetzea, prozeduren izapidetzeari dagokionez, legez eskatzekoa den gehieneko gastua gainditzen denean; eskatutako izapide guztiak betetzea; prozedura berriak hastea kontratazio-araudian ezarritako gehieneko muga gainditu den kasuetan, eta abar.*

- *Udal zerbitzuak eskaintzeko hain garrantzitsuak diren obren plangintza eta kudeaketa Udalak berak egin, kontrolatu eta finantzatu behar ditu, gure iritzian.*

V. UDALAREN 2012ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2012ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak azaltzen ditugu:

V.1. 2012ko AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Azalpena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena (%)
1. Langileria-gastuak	3.716.193	392.267	4.108.460	3.860.347	94	3.708.117	152.230	4
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	3.170.645	478.604	3.649.249	3.568.781	98	3.037.479	531.302	15
3. Interesak	0	0	0	138	100	138	0	0
4. Transferentzia arruntak	732.122	14.913	747.035	690.414	92	541.157	149.257	22
6. Inbertsio errealak	0	496.900	496.900	428.141	86	303.151	124.990	29
7. Kapital-transferentziak	0	31.582	31.582	23.582	75	23.582	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	7.618.959	1.414.267	9.033.226	8.571.403	95	7.613.624	957.779	11

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Azalpena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoaren ehunekoa	Kobrantzak	Kobratzeko daqoena	Kobratzeko daqoena (%)
1. Zuzeneko zergak	2.525.210	0	2.525.210	2.929.816	116	2.722.816	207.000	7
2. Zeharkako zergak	1.171.372	0	1.171.372	213.549	18	181.619	31.930	15
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.197.579	0	1.197.579	1.250.683	104	1.112.381	138.302	11
4. Transferentzia arruntak	3.012.182	0	3.012.182	3.241.973	108	3.079.991	161.982	5
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	165.577	0	165.577	40.508	24	13.381	27.127	67
6. Inbertsio errealean besterentzea	273.000	0	273.000	20.000	7	20.000	0	0
7. Kapital-transferentziak	220.942	0	220.942	112.068	51	112.068	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	961.407	961.407	0	0	0	0	0
Guztira	8.565.762	961.407	9.527.168	7.808.597	82	7.242.257	566.340	7

V.2. 2012ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	8.219.056	7.808.597
- Aitortutako betebeharrak	9.903.183	8.571.403
= Aurrekontuaren emaitza	-1.684.127	-762.806
Doitzeak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-108.448	-
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	-	-
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	1.119.917	662.439
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	-	-
= Aurrekontu-emaitza doitua	-672.658	-100.367

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2012ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	827.440	786.896
(+) Gastuen Diru-sarrerak: aurtengo ekitaldia	549.079	566.459
(+) Gastuen Diru-sarrerak: itxitako ekitaldiak	1.608.214	1.245.214
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	131.474	157.210
+ Ordainketen itzulketak	150	2.439
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-3.955	-6.104
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-1.457.522	-1.178.322
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	-1.366.248	-1.320.183
- Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	-1.038.295	-957.779
- Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	-17.167	-58.380
- Diru-sareren itzulketak	-66.626	-66.745
+ Aplikatzeko dauden gastuak	1.078	1.272
- Aurrekontuz kanpoko gastuak	-245.238	-238.551
+ Diruzaintzako funts likidoak	2.016.647	1.201.465
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	-	-
= Diruzaintza-gerakina, guztira	1.477.839	668.178
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	-	-
Baliabide atxikiaren ondoriozko diruzaintza-gerakina	-	-
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.477.839	668.178

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA (UDALA ETA ANDACELAY, SL)

Jardunean

Azalpena	2011ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
A Ibilgetua	63.101.094	63.294.510
1 Ibilgetu materiala	46.457.178	46.632.887
2 Ibilgetu ez-materiala	486.425	488.090
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	15.929.068	15.945.110
4 Herri ondasunak	36.241	36.241
5 Ibilgetu finantzarioa	192.182	192.182
C Zirkulatzaila	7.748.631	6.594.670
7 Izakinak	-	-
8 Zordunak	2.312.640	2.005.201
9 Finantza-kontuak	5.435.991	4.589.469
Aktiboa, guztira	70.849.725	69.889.180

Pasiboa

Azalpena	2011ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
A Ondare garbia	69.472.924	68.553.535
1 Ondare eta erreserbak	64.552.111	64.044.180
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekina)	(483.549)	(1.007.075)
3 Kapitaleko diru-laguntzak	5.404.362	5.516.430
C Epe luzeko hartzekodunak	4.900	4.900
4 Jasotako gordailuak, prestamenak, maileguak eta fidantzak	4.900	4.900
D Epe laburreko hartzekodunak	1.371.901	1.330.745
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.367.945	1.324.640
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	3.956	6.105
Pasiboa, guztira	70.849.725	69.889.180

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA (UDALA ETA ANDACELAY, SL)

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Azalpena	Kopurua 2011n	2012ko zenbatekoa	Azalpena	Kopurua 2011n	2012ko zenbatekoa
3 Hasierako izakinak	7.187.390	0	3 Bukaerako izakinak	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	8.770.147	726.682
61 Langileria-gastuak	3.937.546	3.966.272	71 Jabetza eta enpresa errenta	(41.432)	519.710
62 Gastu finantzarioak	0	138	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.692.280	2.437.625
63 Zergak	294	11	73 Zerga arruntak, errentaren eta ondasunaren gainekoak	460.832	525.250
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo-zerbitzuak	3.572.615	3.529.081	75 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0
65 Gizarte-prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	3.116.127	3.241.972
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	124.102	180.490
67 Transferentzia arruntak	701.722	690.415	78 Bestelako diru-sarrerak	202.196	110.447
68 Kapital- transferentziak	304.582	23.582	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
69 Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	333	70.169			
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	0	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	380.230	537.492
Guztira	15.704.482	8.279.668	Guztira	15.704.482	8.279.668

Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Azalpena	Kopurua 2011n	Zenbatekoa 2012	Azalpena	Kopurua 2011n	2012ko zenbatekoa
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (Saldo zorduna)	380.230	537.492	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (Saldo hartzekoduna)	0	0
82 Ezohiko emaitzak (Saldo zorduna)	20.942	142.929	82 Ezohiko emaitzak (Saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	82.377	326.654	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89 Etekin garbia guztira (Saldo hartzekoduna)	0	0	89 Galera garbia, guztira (Saldo zorduna)	483.549	1.007.075
Guztira	483.549	1.007.075	Guztira	483.549	1.007.075

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkatuz, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriak buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK.

Udalak 2012ko ekitaldirako luzatu egin du aurreko ekitaldirako onetsiriko aurrekontua. Beraz, aurrekontuko diru-sarreraren eta gastuen kredituak dira 2011ko ekitaldiko hasierako aurrekontukoak, salbu eta egiturazkoak ez diren gastuari dagozkien kredituak eta kredituekin finantzatutako kredituak edo soilik 2008ko ekitaldian jasotako berariazko beste diru-sarrerak, zeinei luzapen horrek ez baitie eragiten, gastu-aurrekontuko kredituen luzapena arautzen duen 270/2011 Foru Dekretuko 21. artikuluari jarraituz.

Aipatutako foru dekretuak ez du berariaz xedatzen nola luzatuko den diru-sarreraren aurrekontua; horrenbestez, Udalak, Toki Administrazioaren Departamentuaren irizpideei jarraituz, diru-sarrerarako kapitulu guztietako aurrekontuak luzatu ditu, nahiz eta zeharkako zergen, ondare bidezko diru-sarreraren eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrera gehienak, zati handiengan, bereziki 2011ko ekitaldian jasotzekoak ziren. Diru-sarrera horien luzapenak haien aurrekontu-zenbatekoaren gainbalioespena eragiten du, nahiz eta horrek ondorioz ez dakarren aurrekontu-betetzeari dagokionez.

Aurrekontuaren espedientea aztertuta, ondorioztatzen da Udalak, orokorrean, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Lege garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuan zehaztutako berezitasunak bete dituela, salbu eta Toki Administrazioari Udaltzaren Osoko Bilkurak onetsitako aurrekontu luzatua bidaltzeari dagokiona, zeren eta ezarritako gehieneko epea iraganda igorri baitzion.

Udalaren kontu orokorra 2013ko urriaren 3ko Osoko Bilkuran onetsi zen; arau indardunak ezarritako epeaz kanpo, horrenbestez.

Sozietate mistoen urteko kontuak informazio osagarri gisa gehitzen dira kontu orokor horren espedientean.

Hornitzaileei egindako ordainketen lagin baten azterketa egin ondoren, ondorioztatzen da Udalak ez dituela bete hornitzaileei ordaintzeko epeak, Merkataritza-eragiketen Berankortasuna Eragozteko Neurriak buruzko 15/2010 Legean ezarritakoak, zeren eta udal sistemak aurreikusita baitzuen ordainketa 60 eguneko epean egitea. 2013tik aurrera, ordaintzeko sistema aldatu da, arau indarduna betetzeko. Egiaztatu da, Udalak 2012an ez duela inolako zenbatekorik ordaindu arrazoi horrengatik berandutza-interesengatik.

Gabeziak detektatu dira zenbait espedienteren dokumentazioaren gaineko kontrolari, kudeaketari eta artxibatzeari dagokienez. Zenbait kasutan, ezin izan dugu egiaztatu kontratazio-espedienteei eta beste arlo batzuei buruzko araudiaren arabera egon beharko lukeen dokumentazioa egiaz badagoen.

Hona gure gomendioak:

- *Urtez urte Udalaren aurrekontu orokor bakarra onartzea, indarreko legedian aurreikusitako epearen barruan, udalaren kudeaketarako tresna eraginkorra izan dadin.*
- *Udalaren kontu orokorra indarrean dagoen legediak ezartzen duen epearen barruan onartzea.*

- Zorren egoera-orrian aurkeztea legez araututa dagoen informazioa Udalaren partaidetza duten merkataritza-sozietateei –Andacelay, SL, Gestión, Promoción Egüés 21, SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL– buruz.

- Dokumentazioa kudeatzeko eta artxibatzeko prozedura eraginkorrak ezartzea, eta dokumentazio osoa artxibatzeko artxibo orokor bat sortzeko aukera aztertzea.

- Administrazioako alor bakoitzeko arduradunek, espedienteak eta egin beharreko jarduerak direla-eta araudi indardunak eskatzen duen dokumentazioa behar bezala betetzen dela ikuskatzea.

VI.2. LANGILEAK.

Langileen atalaren gastuak 3,9 euro egiten du; hau da, 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 45 eta gastu arrunten ehuneko 48.

2011ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko 1 handitu da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea, portzentajea
	2011	2012	2012/2011
Goi karguak	61.860	50.419	-19
Funtzionarioak	1.074.556	950.087	-12
Langile finkoak	459.654	396.056	-14
Aldi baterako lan kontratupekoak	1.086.293	1.177.934	8
Gizarte-zamak	1.154.537	1.285.851	11
1. kapitulua, guztira	3.836.810	3.860.347	1

Funtzionarioen eta lan kontratupeko langile finkoen gatuak behera egin du 2011ko ekitaldikoarekin alderatua, alde batetik 20/2012 Errege Dekretu-legean ezarritakoaren arabera Udalak ez dielako langileei ordaindu abenduko aparteko soldata, eta, bestetik, langile gehiago daudelako eszedentzian.

Aldi baterako langileen gastuak gora egin du nabarmen, gizarte zerbitzuetako langile, zerbitzu anitzetako langile, etxezain eta musika-eskolako irakasle gehiago kontratatu direlako.-

Hori zor zaio, alde batetik, ibarreko populazioak gora egin izateari eta krisi ekonomikoaren eraginei –azken hori dela eta, gehiago dira oinarrizko gizarte zerbitzuan artatzen diren kasuak–. Bestetik, Udalaren zuzkidurak gehiago dira eta udalerrria zabala da; horrenbestez, lorezain, peoi eta etxezain gehiago kontratatu behar izan dira, haiek mantentzeko zereginetarako. Gehikuntza horiek bat datoz gizarte enplegu babestuaren arloko langileengan egindako gastuaren beherakadarekin, programa gutxiago egin baitira.

2011ko plantilla organikoaren behin betiko onespina 2012ko urtarrilaren 26an izan zen; 2012an zehar, plantillaren bi aldaketa onetsi dira. Plantillak, guztira, 101 lanpostu dauzka. 2012ko abenduaren 31n, 56 lanpostu daude hutsik, guztira.

Langileen egoera, 2012ko abenduaren 31n, honakoa da:

	Zerbitzu Orokorrak	Hirigintza	Zerbitzu anitzak	Polizia	Lorezaintza eta ingurumena	Ekonomiko finantzarioak	Gizarte zerbitzuak	Musika-eskola	Kultura.	Kirolak	Gizarte enplegu babestua	Eszedentzia*	Guztira
Funtzionarioak	3	3	2	12	1	1	1	-	-	-	-	6	29
Lan-kontratudun finkoak	2	-	2	-	3	-	2	7	-	1	-	2	19
Behin-behinekoak:	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Kontratu administratiboa dutenak	4	1	8	4	3	1	8	9	3	-	-	-	41
Lan kontratupeko langileak	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	14	-	15
Guztira	9	4	13	17	7	2	11	16	3	1	14	8	105

* Honakoei dagozkie eszedentziak: polizia, 4; zerbitzu orokorrak, 1; zerbitzu anitzak, 2; musika, 1.

2012an, kontratazio prozedura bakarra eraman da aurrera, lan kontratu finkoko saxofoi irakaslea izateko lanpostu bat betetzeko. Egindako azterketatik ondorioztatzen da Udalak nahiko ongi betetzen duela indarreko araudia. Halere, antzeman da ez duela izendapen proposamena NAOn argitaratu, eta izendapena NAOn argitaratu dela izendapena bera egin baino lehenago.

Bestalde, abenduaren 30eko 12/2011 Errege Lege-dekretuak, defizit publikoak zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzkoak, ezartzen du 2012ko ekitaldi osoan ez zela langile berririk sartuko, salbu eta aurreko ekitaldietan egindako enplegu eskaintza publikoetatik heldutako hautapen prozesuak betetzearen ondoriozko kasuetan. Arestian adierazitako lan kontratupeko langile finkoa hartzeko deialdia 2012ko ekitaldirako enplegu eskaintza publikoan ageri da.

Gainera, aldi baterako langileak kontratatzeke zenbait prozedura eraman dira aurrera; horietatik, honakoak aztertu ditugu:

- Ludotekako laguntzaileak lanaldi partzalean hartzeko deialdia, zeregin-pilaketaren ondorioz eta langileak oporraldietan ordezteko.
- Sarrigurengo ikastetxe publikoaren zerbitzuko ethezain lanpostu bat aldi baterako betetzeko, lan araubideko kontratuaren araubidean, zeregin-pilaketaren ondorioz.

Espediente horiek aztertuta, akatsak antzeman dira dokumentazioaren kontrolean eta artxiboan, eta, gainera, espedienteetan ezin izan dugu egiaztatu kontratazioa buruzko legediak eskatzen dituen zenbait dokumentu badauden esate baterako, organo eskudunak deialdia onetsi izatea eta epaimahai kalifikatzailearen aktak.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela, ordainsariak betetako lanposturako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla ondorioztatzen da, oro har; halere, honako akatsak aurkitu ditugu:

- 2013ko ekitaldian, Udalak kendu du zerbitzu anitzetako langile publikoek aparteko orduak egiteko aukera, eta jasotzen zituzten konpentsazioen eta baliagarritasun-osagarriaren ordez bi osagarri jarri ditu (lanpostu osagarria eta lanaldia luzatzearen osagarria), biak ere araudi indardunean badaudenak. Horrekin, arlo honetako kudeaketa hobetu eta argitu du.
- Antzeman da kasu guztietan ez dela bete langileek aparteko orduak egiteko beharrari buruzko txostena, ez eta ordainketa-eskaria ere.

Gainera, egiaztatu da Udalak bete duela Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legean

ezarritakoa, bai eta abendukoa aparteko soldata kentzen duen 10/2012 Errege Lege-dekretuko 2. artikuluan ezarritakoa ere.

Bestalde, egiaztatu dira zinegotziei 2012an sortutako dieten kontzeptuan –osoko bilkuretara, tokiko gobernu batzarrera, batzordeetara eta abarretara joateagatik– egindako ordainketak, zeinak 2011ko ekaineko osoko bilkura batean erabaki baitziren. Izan ere, honakoa xedatzen du arauak:

- Eguesibarko Udaleko alkate-udalburuaren kargua arduraldi osoko araubidean beteko da, ordainsariei buruzko erregelamenduko A mailako soldataren baliokidea den lansariarekin, gehi ehuneko 80ko osagarria; guztira, 45.507,17 euro.

- Zinegotziak: osoko bilkura, tokiko gobernu batzar eta informazio batzordeetara bertaratzegatik, honako zenbatekoak jasoko dituzte:

- a) Osoko bilkurara joatea: 90 euro.
- b) Tokiko gobernu batzarreko kideek: 60 euro.
- c) Informazio batzordeko buruek: 60 euro.

Araudi horren arabera, zinegotziek 2012an guztira jasotako ordaina, 2. kapituluaren kontabilizatzen dena, 62.695 eurokoa izan da, eta ez da aurkitu Udalaren barne araudiaren ez-betetzetik.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratazio araudiak eskatzen dituen dokumentu eta izapide guztiak osatzea, eta hartan ezarritako publizitate epeetara egokitzea.*

- *Kasu guztietan beharri buruzko txostenak eta ordainketa egiteko eskaria betetzea, aparteko orduak egiten diren kasuetan.*

- *Indarrean den araudiaren testuinguruan, aurrekontu-zuzkidura duten bete gabeko lanpostu guztiak enplegu-eskaintza publikoan sartzea.*

VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 3,6 milioi euro egin dute 2012ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 42 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 48 egiten dute. 2011. urtearen aldean, ehuneko 1 egin dute gora.

Gastuaren arloan gertatu den egonkortasun horren arrazoia da haurtzaindegien eta familiei arreta emateko zentroaren kudeaketa-gastuetan gertatutako igoera konpentsatu dela beste kontusail batzuetan –esate baterako, lorategietarako mantentzea, legelarien txostenak eta txosten judizialak– lortutako aurrezkiekin.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Azalpena	Kontratu-mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Haur hezkuntzako lehen zikloko 3 zentrotako 18 unitate kudeatzea	Laguntza	Irekia, Europako mugatik gora / eskaintzarik onena	747.604	2	633.163
Erripagainako, Gorraizko eta Sarrigurengo berdeguneen mantentzerako kontratua	Laguntza	Irekia, Europako mugatik gora / eskaintzarik onena	290.847	10	204.321

Aurreko azterketatik eta kontratu indardunen gainean edo/eta 2012an amaitutakoen gainean egindakotik ondorioztatzen da Udalak nahiko ongi betetzen duela kontratazioaren alorrean aplikatzekoa den araudia, honako salbuespen hauekin:

- Esleipen espedienteetan aurkitutako akats batzuk, kontu-hartzailetzaren txostenik eta txosten teknikorik ez egotearekin edo esleipenak atzerapenez argitaratzearekin lotutakoak.
- Zerbitzuen prestazio batzuek 2012an izan duten gastu-bolumenari eutsiz gero, beharrezkoa izanen litzateke zenbatekoari egokitutako kontratazio-prozedura bat izapidetzea.
- Zenbait kontratuk kontratazio publikoan baimendutako eta esleipen-hartzailearekin izenpetutako kontratuaren urte-muga gainditzen dute.
- Desbideratzeek esleipen-zenbatekoaren ehuneko 50 gainditzen duten kontratuetan, ez da beti jo kontratazio publikorako prozedura berriz egitera.

Hona gure gomendioak:

- *Espediente guztiak osatzea kontratazio araudiak exijitzen dituen dokumentu eta izapide guztiekin, eta hartan ezarritako publikitate epeetara egokitzea.*
- *Urteko gastuen bolumena aldeztu aurretik balioets daitekeen kasuetan, dagozkion kontratazio-espedienteak izapidetzea.*
- *Behar diren kontratazio prozedurak hastea kontratuaren iraupenak kontratazio araudian edo esleipen-hartzailearekin izenpetutako kontratuan ezarritako muga gainditzen duenean.*
- *Aldaketek esleitutako zenbatekoaren ehuneko 50 gainditzen dutenean, beste lizitazio prozedura bat egitea, indarreko legedi indardunean ezarritako moduan (Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeko 105. artikulua).*

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia arruntengatiko gastuek 0,7 milioi egin dute, eta 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 8 dira.

Kapital-transferentzien gastuek 2012an 20.000 euro egin dute, eta 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 0,28 izan dira. 2011n, izaera hori duen gastua 305.000 eurokoa izan zen, zeren eta partzialki finantzatu baitziren oinezkoentzako pasabide bat eta bizikleta-errei bat.

Honakoa da transferentzia arruntengatiko 2011ko eta 2012ko gastuak alderatzeko taula, artikuluz artikulukoa:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea, portzentajea 2012/2011
	2011	2012	
Foru Komunitateari	22.655	22.655	0
Toki entitateei	288.133	305.285	6
Kirol klub eta elkartei	223.010	152.568	-32
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	167.924	209.906	25
Transferentzia arruntak	701.722	690.415	-2

2011rekin alderatuta, gastu horiek ehuneko 2 egin dute behera, funtsean behera egin dutelako kirol-klub eta -elkarteetarako transferentziek -70.000 euro- eta gizarte zerbitzueterakoek -22.000 euro-; izan ere horien bidez konpentsatu da lankidetzaren proiektuetarako emandako laguntzek gora egin izatea -62.000 euro-.

Toki entitateentzako diru-laguntzen barruan, Udaleko kontzejuen jaiak finantzatzera bideratutako 65.000 euro egotzi dira (2011n, 66.000 izan ziren).

Bestalde, kirol-klub eta elkarteentzako diru-laguntzak ehuneko 32 murriztu dira. Bi klubi emandako diru-laguntzek izaera horretako gastuaren ehuneko 54 egiten dute.

Honakoak dira 2012an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko gizarte-zerbitzuarentzako laguntzak	97.240
Kontzejuei jaiak antolatzeke emandako laguntzak	64.767
Lankidetzeta proiektuak	62.000
Futbol klubarentzako diru-laguntza	47.870
Guztira	271.877

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da Udalak indarrean dagoen araudia behar bezala bete duela.

Udalak ez du ez Ordenantza Orokorrik ez diru-laguntzen Plan estrategikorik; edonola ere, diru-laguntzak ordenantza berezien bitartez arautzen ditu.

Hona gure gomendioak:

- *Egungo egoera ekonomikoan, Udalak jarraitzen duen diru-laguntzen politika aztertzea.*
- *Diru-laguntzen plan estrategiko bat egitea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak, baliabideen aurreikuspena, eragina eta abar.*
- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egonkortasuna aztertzea.*

VI.5. INBERTSIOAK

2012. urterako aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (500.000 euro) ehuneko 86 bete da, eta 400.000 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldirako aitortutako betebeharrak guztien ehuneko bost.

2011rekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 65 –hau da, 800.000 euro– egin dute behera. Beherakada horren arrazoia izan da obra eta hobekuntza-lan gutxiago egin direla erabilera publikoko ondasunetako azpiegiturretan eta kontzeju-etxeetan; beste arrazoi bat da 2011n kirol instalazioen, familiei arreta emateko zentroaren eta haur hezkuntzako ikastetxe berriaren ekipamendua erosi behar izan zela.

Honakoak dira 2012an egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Zenbatekoa
Zerbitzu anitzetarako makineria	163.056
Telekomunikazioetan egindako inbertsioak	47.847
Sarrigurengo haurtzaindegiko aire egokitua	37.000
Kontzejuetako urbanizazioan eginiko lan txiki eta hobekuntza-lanak	35.510
Guztira	283.413

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hau berrikusi da (zenbatekoak BEZik gabe):

Azalpena	Kontratu-mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Eskobatzeko makina baten hornidurako kontratua	Hornidura	Irekia, europar atalasetik behera /eskaintzarik onuragarriena	155.000	2	132.840

Aurreko azterketatik eta 2012an amaitutakoen gainean egindakotik ondorioztatzen da Udalak nahiko ongi betetzen duela kontratazioaren alorrean aplikatzekoa den araudia, honako salbuespen honekin: aginduzkoa den kontu-hartzaitzaren txostena ez egotea.

Gomendatzen dugu espedienteak osatzea kontratazio araudiek exijitzen dituen izapide guztiekin.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012ko ekitaldian aitortutako eskubideak 7,8 milioikoak izan dira; ehuneko 99 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerei dagozkie eta ehuneko 1, berriz, kapital-eragiketei.

Diru-sarrera arruntan artean tributuen bidezko diru-sarrerak (4,4 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (3,2 milioi eurokoak) nabarmentzen dira. Kapital-eragiketetan, kapital-transferentziak dira azpimarratzekoak (100.000 euro).

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 82,88koa izan da. Zuzeneko zergen, tasen eta bestelako diru-sarreraren eta transferentzia arruntan kapituluek ehuneko 100aren inguruko betetzeak ageri dituzte. Gainerako kapituluek, ordea, betetze askoz txikiagoak dituzte, zeren eta kapitulu horietarako aurrekontuetan jasotako zenbatekoak ez baitira egokitu, ez 2011ko aurrekontua luzatzeko unean, ez 2012ko ekitaldian zehar eginiko aurrekontu-aldaketen bitartez.

2011ko ekitaldian, Andacelay, SL hirigintza sozietatetik jasotako dibidenduari zegozkion 115.000 mila euroko kopurua erregistratu dira, 2010eko ekitaldiari zegokion emaitzaren banaketa dela eta. 2012an, hirigintza-sozietate horrek ez du dibidendurik banatu.

2011. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 5 egin dute behera. Hona xehakapena:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea, portzentajea
	2011	2012	2012/2011
1 Zuzeneko zergak	2.469.072	2.929.816	19
2 Zeharkako zergak	808.142	213.549	-74
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.387.080	1.250.683	-10
4 Transferentzia arruntak	3116.127	3.241.973	4
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	221.961	40.508	-82
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	8.002.382	7.676.529	-4
6 Inbertsio errealeen besterentzeak	0	20.000	-100
7 Kapital- transferentziak	216.674	112.068	-48
Kapital-sarrerak eta finantza-eragiketenak (6. kapitulutik 9.era)	216.674	132.068	-39
Diru-sarrerak guztira	8.219.056	7.808.597	-5

Nabarmendu behar dugu 2012an beherakada oso nabarmena gertatu dela zeharkako zergen (EIOZa) bilketan, udalerriko hirigintza-jarduerak behera egin duelako, azken urteetan goraldi txiki bat izan ondoren Erripagainako arloaren garapenaren eraginez; halaber, nabarmendu behar dugu zuzeneko zergen bidezko diru-sarrerek 500.000 euroan gora egin dutela.

Ondoko taulan ikusten da diru-sarrera arrunt hauek eta EIOZek azkeneko urte hauetan izan duten bilakaera:

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Diru-sarrera arruntak, EIOZa kenduta	4.667.101	5.273.431	6.112.411	7.004.240	7.194.240	7.462.980
EIOZa	4.622.638	1.269.407	1.063.717	1.631.306	808.142	213.549
Diru-sarrera arruntak	9.289.739	6.542.838	7.176.128	8.635.546	8.002.382	7.676.529

Kapital-eragiketetan, nabarmentzekoa da kapital-transferentziak jaitsi egin direla, egindako inbertsioen bidez jasotako diru-laguntzek behera egitearen ondorioz.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea, portzentajea 2012/2011
	2011	2012	
Lurraren kontribuzioa	1.587.058	1.947.876	23
Ibilgailuak	460.728	525.143	14
Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	124.102	180.490	45
JEZa	297.184	276.307	-7
EIOZa	808.142	213.549	-74
Guztira	3.277.214	3.143.365	-4

Aldaketa nagusia aurkitzen da, aipatutako EIOZean ez ezik, lursailen balio-gehikuntzan ere, zeren eta 2012an Erripagaina sektoreko etxebizitzak eman baitira. Halaber, nabarmentzekoa da trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergen bidezko diru-bilketak gora egin duela, udalerriko biztanleen kopuruak gora egin duelako.

2012ko ekitaldian, 2011ko ekitaldian onetsitako balorazio-ponentziaren balioak aplikatzen hasi zen. Udalak 2012ko ekitaldian aplikatutako tasak, EIOZari dagozkionak salbu, Toki Ogasunei buruzko 2/2012 Foru Legeak agintzen dituen tasa behereneko tartean daude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraldeko kontribuzioa	0,1575	0,10 - 0,50
Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga	1	1 - 1,4
Lurren balioaren igoera		
Gaurkotzearen koefizientea	2,1etik 2,8ra	2tik 3,8ra
Karga-tasa	12	8 eta 20 bitarte
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	4,5 eta 4,8 bitarte	2 - 5

Tasa hauetan ez da aldaketarik izan 2009tik.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin bat aztertuta egiaztatu ahal izan dugu behar bezala izapidetu eta kontabilizatzen direla, oro har; halere, aurkitu da ez dagoela kontrol edo/eta jarraipen egokirik enpresei zoru, hegalkin eta zorupeko erabilerarengatik kobratutako kanona zuzen kalkulatu dagoela egiaztatzeko. Hala eta guztiz ere, haiek eraginkortasunez kontrolatzeko mekanismoak garatzen ari dira gaur egun.

Hona gure gomendioak:

- *Zoru, hegalkin eta zorupeko erabilerarengatik kanonen diru-bilketa prozeduraren gaineko kontrol- eta jarraipen-mekanismoen garapena amaitzea.*

VI.7. HIRIGINTZA

Honela dago osatuta Udalaren hirigintzako departamentua/unitatea: bi udal arkitekto, aparejadore bat eta administrari bat.

Eguesibarko Udal Plana 2000. urtean onartu zen behin-betiko, eta kontzejuen beste zenbait planeamendu-tresna ere badaude aldi berean.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Eguesibarko Udal Plan Orokorra berrikusteko prozedura 2006an hasi zen. 2011ko maiatzaren 16an, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren erabakiz, behin betiko onespena ematen zaio Eguesibarko Udalaren Plan Orokorrari –ibar osorako bakarra–, baina hiru hilabeteren buruan erabaki horretan zehazten diren zehaztapen guztiak jasoko dituen testu bateratu bat aurkezteko exijitzen da. Txosten hau egin den egunean, testu bateratu hori onartu gabe dago oraindik. Nafarroako Gobernuaren erabaki horren kontra errekurtoa jarri du, gainera, herritar-elkarte batek.

Nafarroako Gobernuak baliorik gabe utzi zuen, urriaren 19ko erabakiz, planeamendu berriaren behin betiko onarpena, aurreikusten den egoitzen emendioa –21.435 etxebizitza– justifikatu gabe dagoela argudiatuz, besteren artean. Erabaki horrekin, plan horren behin-behineko onarpen-fasera atzeratu ziren berriro jarduerak. Gaur egun, Udala aztertzen ari da erabaki horretan ezarritako aldaketak, haiek jaso eta, hartara, HAPO berria idazteko.

Planeamendu berria indarrean jarri arte, oztopoak izanen dira lbarraren hirigintza planeatzeko, garatzeko, burutzeko eta gauzatzeko, Udalaren beraren eta Udaleko kontzejuen planeamendu-tresna desberdinak daudelako aldi berean.

Beste alde batetik, hirigintzako espedienteen kudeaketa, kontrola eta jarraipena erraztuko luketen kudeaketa-prozedurarik, datu-baserik eta artxibo zentralizaturik ez dagoela ikusi da. Horrez gainera, hirigintzako udal enpresek gauzatzen duten hirigintza-jarduerari dagokionez – etxebizitzak eta bestelako obra batzuk bultzatzea eta eraikitzea–, Udalaren hirigintzaren kudeaketarako eta barne kontrolerako organoek ez zuten behar bezalako jarraipenik egiten inbertsio horien garapen-prozesuaz.

2012ko abenduan, Andacelay SL sozietaterako gerente bat kontratatu zen.

Udalak udal inbentario bat eginga dauka, bai eta Lurzoruaren Udal Ondarearen berriazko erregistro bat ere. Azken hori osatzen duten elementuen balioa 6,7 milioi eurokoa da 2012ko abenduaren 31n. Egindako azterketan, ikusi da biak gaurkotuta daudela eta, orokorrean, Udalak haien gaineko kontrol egokia duela.

VI.8. ANDACELAY, SL SOZIJETATE PUBLIKOA

Andacelay SL sozietatearen urteko kontuak direla eta, 2012ko abenduaren 31n, kanpoko auditoreek finantzen auditoria-txosten bat egin dute. Haien iritzian salbuespen bat ageri da; izan ere, lokal bat haurrentzako udal eskolarako errentan emateari dagokion 120.000 euroko gastuak sartu dira kontu horietan, nahiz eta gastu hori ez dagokion sozietateari, Udalari baizik. 2013an, gastu horiek berreskuratzeko prozedura hasi da.

Sozietateak gerente bat dauka 2012ko abendutik.

Sozietatearen ondare garbia 3,6 milioi eurokoa da 2012ko abenduaren 31n, hain zuzen ere 2011ko abenduaren 31n bezalaxe. 2012ko ekitaldiko emaitzak 20.000 euroko galerak ekarri ditu; 2011ko galerak, berriz, 5.000 eurokoak izan ziren. Aktibo zirkulatzailearen "Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak" 2,4 milioi eurokoa izan da 2012ko abenduaren 31n; 2011ko abenduaren 31n, berriz, 2,3 milioi eurokoa izan zen.

Bazkideen 2012ko ekainaren 28ko batzar orokorrean, alkate berria, Alfonso Etxeberria Goñi, izendatu zen kontseiluko buru berri.

VI.9. GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21 SA ETA GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21-II SL SOZIETATE MISTOAK

VI.9.1. Gestión y Promoción Egüés 21, SA

Txosten hau egiteko egunean, Gestión y Promoción Egüés 21, SA sozietatearen 2012ko abenduaren 31ko kontuak, zeinak I. gehigarrian informazio gisa eman baititugu, Administrazio Kontseiluak formulatu gabe daude. Sozietateak bere urteko kontuak auditatzeko aurkezten ditu, baina txostena eman gabe dago, kontuak behin betiko formulatu arte.

Milioi bat euroko ondare garbia dauka, eta ekitaldiko emaitza 63.000 eurokoa da. Sozietate honek ez du langilerik.

Kontuen Ganberaren gomendioei jarraituz, eta ikusita sozietate horrek egindako sustapenetako higiezin ia guztiak saldu egin direla, 2013ko apirilaren 13an, sozietatea likidatu zen.

VI.9.2. Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL

Txosten hau egiteko egunean, Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL sozietatearen 2012ko abenduaren 31ko kontuak, zeinak I. gehigarrian informazio gisa eman baititugu, Administrazio Kontseiluak formulatu gabe daude. Sozietateak bere urteko kontuak auditatzeko aurkezten ditu, baina txostena eman gabe dago, kontuak behin betiko formulatu arte.

1,3 milioi euroko ondare garbia dauka, eta ekitaldiko emaitza 1,3 eurokoa da. Sozietate honek ez du langilerik.

2012ko abenduan, oraindik ere 49 etxebizitza eta zenbait lokal eta garaje libre zeuden saltzeko. Horrenbestez, sustatutako etxebizitza guztien ehuneko 65 salduta zegoen. Txosten hau egiteko egunean, 32 etxebizitza daude saltzeko.

2013ko ekainaren 14an, bazkide pribatua hartzekodunen borondatezko konkurtsoan deklaratu zen. Konkurtsoko administratzaileak epaitegiari emandako txostenarena arabera, 1,26 milioi onartu dira mendeko kreditutzat.

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko urriaren 23an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

I. GEHIGARRIA: “Gestión y Promoción Egüés 21, SA” sozietate mistoaren 2012ko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtuaren eta galeren eta irabazien kontu laburtuaren zirriborria

2012ko egoera-balantze laburtuaren zirriborria

Jardunean

	2011	2012
A. Aktibo ez-korrontea	362	0
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	362	0
B. Aktibo korrontea	1.140.167	1.179.733
II. Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak	0	971.855
II. Izakinak	795.227	0
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	76.353	0
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	268.587	207.878
Aktiboa, guztira	1.140.529	1.179.733

Ondare garbia eta pasiboa

	2011	2012
A. Ondare garbia	1.003.927	1.067.372
A.1 Funtz propioak	1.003.927	1.067.372
I. Kapitala	300.000	300.000
III. Erreserbak	740.306	740.306
V. Aurreko ekitaldietako emaitza	0	(36.379)
VII. Ekitaldiko emaitza	(36.379)	63.445
A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0	0
B. Pasibo ez-korrontea	129.583	0
II. Epe luzeko zorrak	129.583	0
C. Pasibo korrontea	7.019	112.361
III. Epe laburreko zorrak	12.772	112.361
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	(5.753)	0
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	1.140.529	1.179.733

2012ko galeren eta irabazien kontu laburtuaren zirriborroa

	2011	2012
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	171.296	9.500
2. Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldaketa	-184.599	-5.887
3. Enpresak, bere aktiborako, egindako lanak	0	0
4. Hornidurak	0	0
5. Bestelako ustiatzeengatikoko diru-sarrerak	0	0
6. Langile gastuak	0	0
7. Bestelako ustiatze-gastuak	-16.823	-85.640
8. Ibilgetuaren amortizazioa	0	0
9. Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena eta beste batzuk	0	0
10. Gehiegizko hornidurak	0	0
11. Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0
13 Bestelako emaitzak	1.020	148.881
A) Ustiatzearen emaitza	-29.106	66.854
14. Finantza diru-sarrerak	4	5
15. Gastu finantzarioak	-6.101	-1.360
16. Tresna finantzarioetako balio-aldaketa arrazoizkoa	-1.176	-2.054
17. Aldaketako aldea	0	0
18. Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0
B) Emaitza finantzarioa	-7.273	-3.409
C) Zerga aurreko emaitzak	-36.379	63.445
17. Mozkinen gaineko zerga	0	0
D) Ekitaldiko emaitza	-36.379	63.445

II. GEHIGARRIA: “Gestión y Promoción Egüés 21-II SL” sozietate mistoaren 2012ko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtuaren eta galeren eta irabazien kontu laburtuaren zirriborroa

2012ko egoera-balantze laburtuaren zirriborroa

Jardunean

	2011	2012
A. Aktibo ez-korrontea	361	361
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	361	361
B. Aktibo korrontea	12.163.576	7.648.772
II. Izakinak	11.669.261	6.052.671
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	388.581	144.883
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	105.734	1.451.218
Aktiboa, guztira	12.163.937	7.649.133

Ondare garbia eta pasiboa

	2011	2012
A. Ondare garbia	-407.304	1.281.393
A.1 Funts propioak	-407.304	1.281.393
I. Kapitala	3.100	3.100
III. Erreserbak	0	0
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak	0	(410.404)
VII. Ekitaldiko emaitza	-410.404	1.688.697
A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0	0
B. Pasibo ez-korrontea	8.043.545	5.985.343
II. Kreditu-entitateekiko zorrak	8.043.545	5.985.343
C. Pasibo korrontea	4.527.696	382.397
I. Kreditu entitateekiko zorrak	0	0
III. Epe laburreko zorrak	77.125	-282.294
V. Merkataritza-hartekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	4.450.571	664.691
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	12.163.937	7.649.133

2012ko ekitaldiko galeren eta irabazien kontu laburtuaren zirriborroa

	2011	2012
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	0	14.884.802
2. Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldaketa	5.957.065	-5.605.699
3. Enpresak, bere aktiborako, egindako lanak	0	0
4. Hornidurak	-5.468.497	-6.672.892
5. Bestelako ustiatzeengatikoko diru-sarrerak	0	240.154
6. Langile gastuak	0	0
7. Bestelako ustiatze-gastuak	-676.763	-173.495
8. Ibilgetuaren amortizazioa	0	0
9. Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena eta beste batzuk	0	0
10. Gehiegizko hornidurak	0	0
11. Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0
13 Bestelako emaitzak	7.017	70.136
A) Ustiatzearen emaitza	-181.178	2.743.006
14. Finantza diru-sarrerak	0	110
15. Gastu finantzarioak	-229.226	-507.437
16 Tresna finantzarioetako balio-aldaketa arrazoizkoa	0	0
17. Aldaketako aldea	0	0
18. Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0
B) Emaitza finantzarioa	-229.226	-507.327
C) Zerga aurreko emaitzak	-410.404	2.235.679
17. Mozkinen gaineko zerga	0	-546.982
D) Ekitaldiko emaitza	-410.404	1.688.697

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA


- I. Sarrera (32. or.).
- II. Helburua (35. or.).
- III. Norainokoa (35. or.).
- IV. 2012ko kontu orokorrari buruzko iritzia (37. or.).
 - IV.1. Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra. (37. or.).
 - IV.2. Legezkotasuna (37. or.).
 - IV.3. 2012ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera (37. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (41. or.).
- V. Kontu orokor bateratuaren laburpena (42. or.).
 - V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera (42. or.).
 - V.2. Aurrekontu-eremua bateratua (42. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (43. or.).
 - V.4. Egoera-balantze bateratua (43. or.).
 - V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua (44. or.).
- VI. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (45. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak. (45. or.).
 - VI.2. Langileria (46. or.).
 - VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (48. or.).
 - VI.4. Inbertsioak (49. or.).
 - VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (50. or.).
 - VI.6. Hirigintza (52. or.).
 - VI.7. "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarrá, SA" (GEDEMELSA) udal sozietatea. (53. or.).

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomo "Julián Romano" Musika Patronatuaren 2012ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Lizarrako udalerriak 15,39 km²-ko hedadura du, eta 14.138 biztanle zituen 2012ko urtarrilaren 1ean.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2012ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Sektore publiko administratiboa, Udalak berak eta bere erakunde autonomo bakarrak, "Julián Romano" Musika Patronatuak, osatua.

Erakundea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2002-12-31n
Udala	10.076.255	11.644.957	139 ⁽¹⁾
Musika Patronatua	374.805	329.631	16
-Bateratzearen doitzeak	-269.371	-269.371	-
Guztizkoa, bateratua	10.181.689	11.705.217	155

(1) Kopuru honek gizarte enpleguko programako 16 parte-hartzaileak biltzen ditu. Haiekiko lan-harremana 2012ko abenduaren 28an amaitu zen.

Udalak "Julián Romano" Musika Patronatua erakunde autonomoari egindako ekarpena 233.557 eurokoa izan zen. Ekitaldiaren amaieran guztiz ordainduta zegoen.

- Enpresen Sektore Publikoa: 2006an, Udalak "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarra, SA" (GEDEMELSA) enpresa sortu zuen, 60.500 euroko kapital sozialarekin, jabetza osoa Udalarena duena. Elkarre horrek ez du inolako jarduerarik egin sortu zenetik. 2012an, 591 euroko gastuak eta 709 euroko diru-sarrerak dauzka.

Jurramendiko Mankomunitatearen barruan da Udala, eta haren bidez eskaintzen ditu ur horniketa eta zabor-bilketa zerbitzuak. Lizarraldeko Turismo Partzuergoan eta L'Urederra elkartean ere parte hartzen du. Zerbitzu hauek guztiek 110.443,03 euroko gastuak eragin dizkiote Udalari.

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan ageri direnak dira:

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak
<i>Zerbitzu administratibo orokorrak</i>	X			
<i>Musika-eskola</i>		X		
<i>Hirigintza</i>	X			
<i>Ur-hornidura</i>			X	
<i>Hiri-hondakinak</i>			X	
<i>Kale garbiketa</i>				X
<i>Udal hilerria</i>				X
<i>Kultur etxea</i>	X			
<i>Liburutegia</i>	X			
<i>Gustavo de Maeztu museoa</i>	X			
<i>Haur-eskola</i>	X			
<i>Kontsumitzaileari informazioa emateko bulegoa</i>				X
<i>Gizarte zerbitzuak</i>	X			
<i>Etxeko arreta</i>	X			
<i>Kultur etxea</i>	X			
<i>Gaztetxea</i>	X			
<i>"Tierra Estella" kirol-pabiloia</i>				X
<i>"Remontival" frontoia</i>				X
<i>berdintasuna</i>	X			
<i>Herritarrentzako Arreta</i>	X			
<i>Diru-bilketa exekutiboa</i>				X
<i>Lantegi-eskolak</i>	X			
<i>Udako igerilekuak</i>				X
<i>Udal-hiltegia</i>				X
<i>Los Llanos aisiarako zentroa</i>				X
<i>Aterpetxeak</i>				X
<i>Eremu urdina eta lurpeko aparkalekua</i>				X

Toki entitateari 2012ko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Orokorrak Nafarroako toki entitateetan aplikatzekoa dena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.

Urriaren 26ko 13/2009 Errege Lege-dekretua, Enplegurako eta tokiko iraungarritasunerako estatuko funtsa sortu zuena.

Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzkoa.

Ekainaren 29ko 2/2012 Legea, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

Martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legea, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luzatzen duena.

Abenduaren 21eko 246/2011 Foru Dekretua, Kontratuei buruzko Foru Legearen Europar Batasuneko atalaseak eguneratzen dituena.

- Berriazko araubidea:

2012ko aurrekontuaren betetze-oinarriak.

Tributuak arautzen dituzten ordenantzak.

Diru-laguntzak emateari buruzko oinarri arautzaileak.

Sozietate publikoa, bere estatutuez gainera, toki-araubidearen araudi orokorraz eta indarrean dagoen merkataritza-araudiaz arautzen da; bereziki, Merkataritza Kodeaz, Kapital Sozietateen legeaz eta Kontabilitate Plan Orokorraz.

Txostenak sei atal ditu, sarrera barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako fiskalizazio-lanaren norainokoa eta mugak. Laugarrenean, Udalaren kontu orokorrari buruz dugun iritzia azaltzen dugu. Bosgarren atalean kontu orokor bateratu horren laburpen bat jaso dugu, eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, Udalaren, haren erakunde autonomoaren eta haren mendeko sozietate publikoaren barne-antolaketa eta -kontrola hobetzeko egokitzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Horrez gainera, eranskin bat sartu da, Udalak 2012ko ekitaldiko kontuei buruz egindako oroitidazkiarekin.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Udaleko eta haren erakunde autonomoko langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Lizarrako Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin da.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Lizarrako Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.
- Aplikagarri zaion legedia zer neurritan betetzen den Lizarrako Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoak 2012an aurrera eramandako jardueran.
- Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoera.
- Ganbera honek 2011ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Kontuen Ganberak Lizarrako Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Honako kontabilitateko egoera-orriak hartzen ditu:

- Toki entitatearen eta haren erakunde autonomoen kontua ("Julián Romano" Musika Patronatua): aurrekontuaren likidazioa, aurrekontuaren emaitza, diruzaintza-gerakina, egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua.
- Udal-sozietatearen urteko kontuak: egoeraren balantzea, galeren eta irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketan egoera eta oroitidazkia.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, egoera-orri bateratuak, zorraren egoera eta esku-hartze txostena.

Zehaztu beharra dago Udalak ez zuela 2012ko aurrekontua onetsi eta 2011koa luzatu zuela; azken hori, gainera, 2010ekotik luzatutako aurrekontua zen.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Bartzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarraren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Pro-

zedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoi dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarriko prozedura administratiboak ere; aztertu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak.

IV. 2012ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Lizarrako Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta labur-labur jaso da txosten honen V. atalean.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzia agertuko dugu:

IV.1. UDALAREN 2012ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, oraindik eguneratu gabe dago eta ez ditu ondasun eta eskubide guztiak jasotzen; hartara, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren saldoaren arrazoikotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2012ko abenduaren 31n, 71,9 milioi eurokoa zen.

Arestian aipatutako salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2012ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomo "Julián Romano" Musika Patronatuaren jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun-printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2012ko ABENDUAREN 31ko EKONOMIA- ETA FINANTZA-EGOERA

2012an 2011ko aurrekontuak luzatu ziren, eta 2011koak aurreko urtetik luzatutako aurrekontuak ziren.

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 11,2 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko zortzi handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 12,2 milioikoak dira. Aldaketa horiek, gastuei dagokienez, inbertsioen kapituluan egin dira; diru-sarrerei dagokienez, berriz, transferentzietan eta finantza-aktiboetan egin dira.

Aitortutako betebeharrak 10,2 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 84,5eko betetze-maila izan dute. Maila horren arrazoia da inbertsio errealeko gastuen betetzea txikia izan dela, ehuneko 68koa hain zuzen.

Aitortutako eskubideek 11,7 milioi euro hartzen dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 96,2koa da.

Beren izaerari erreparatuta, gastu arruntek gastuen ehuneko 89 egiten dute. Diru-sarrera arruntak guztizkoaren ehuneko 88 dira; diru-sarreraren ehuneko 48, berriz, jasotako transferentzietatik heldu dira (ehuneko 44 transferentzia arruntetatik eta ehuneko 4 kapital-transferentzietatik).

Taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren gastuko 100 eurotik bakoitza:

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Langileria	53	Zergen bidezko diru-sarrerak	47
Bestelako gastu arruntak	35	Transferentziak	48
Inbertsioak	9	Ondare bidezko diru-sarrerak	5
Finantza-karga	3		
	100		100

Hona Udalaren 2012rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2011tik izan duen bila-kaerari buruzko datu ekonomikoak (eurotan):

	2012	2011	Aldea, portzentajea, 2012 / 2011
Aitortutako betebeharrak	10.181.689	13.287.279	-23
Likidatutako eskubideak	11.705.217	13.076.724	-10
Gastuen betetze-maila (%)	84	77	
Diru-sarreraren betetze-maila (%)	96	76	
Ordainketak (%)	92	94	
Kobrantza (%)	86	92	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	9.086.752	10.224.329	-11
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	8.935.498	10.050.686	-11
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	938.793	2.908.101	-68
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	156.145	154.849	1
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	10.282.559	11.528.238	-11
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	5.559.761	5.545.017	-
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 7ra)	1.422.658	1.548.487	-8
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	48	55	
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	61	54	
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	1.679.672	-55.706	
Aurrekontu-emaizta doitua	1.680.654	936.452	79
Aurrezpen gordina	1.347.061	1.477.552	-9
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	307.398	328.492	-6
Aurrezki garbia	1.039.663	1.149.060	-10
Zorpetze-maila (%)	2,99	2,85	
Zorpetze-muga (%)	13,10	12,82	
Zorpetze-ahalmena (%)	10,11	9,97	
Diruzaintza- gerakina, guztira	1.907.906	951.465	101
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.201.961	69.541	1628
Udalaren zor bizia	6.459.965	6.616.110	-2
Zor bizia biztanleko	457	464	-2
Diru-sarrera arruntaren gaineko zor bizia (%)	63	57	
Zor bizia / Aurrezki gordina	4,80	4,48	

2012an, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 23 gutxiago gastatu du -3,1 milioi gutxiago-, batez ere hurrengo gastuek behera egin dutelako: inbertsioetakoa -2011koa baino bi milioi euro txikiagoa izan da-, langileena -2011koa baino 700.000 euro txikiagoa- eta gastu arrunt eta zerbitzuetakoa -500.000 euro gutxiago-.

Beste alde batetik, diru-sarrerak aurreko ekitaldian baino ehuneko 10 gutxiago izan dira; hau da, 1,4 milioi euro gutxiago. Beherakada hori inbertsioetarako kapital-transferentziak urritu direlako izan da, 2011n 1,5 milioi eurokoak izatetik 2012an 400.000 eurokoak izatera pasa baitira; gauza bera gertatu da transferentzia arruntekin, 400.000 euro jaitsi batira.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa positiboa da, 1,6 milioi eurokoa; horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak izaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak direla. 2011n, saldo hori 55.706 euro negatibokoa izan zen.

Aurrekontu-emaizta doitua 1,7 milioi eurokoa da; aurreko urtean, berriz, emaitza 0,9 milioi eurokoa izan zen.

2012an, bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak balio positiboak dauzkate, 1,3 eta 1,0 milioioak, hurrenez hurren; eta ehuneko 9 eta ehuneko 10 jaitsi dira aurreko urteko balioekin alderatuta.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 2,99koa da, eta ehuneko 13,10eko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berrietarako ahalmen ekonomikorik. Hala eta guztiz ere, Udaleko kontu-hartzaitzak bere oroitidazkian adierazten duen bezala, ekitaldian lortutako aparteko diru-sarrerak kenduta, aipatutako zorpetzearen muga ehuneko 6,59koa izanen litzateke.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina –hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea– positiboa izan zen: 1,2 milioi euro (2011n, berriz, 69.541 eurokoa izan zen).

Epe luzerako zorra 6,4 milioi eurokoa da 2012an; 2011n, berriz, 6,6 milioi eurokoa izan zen. Zor hori –biztanle bakoitzeko 457 euroraino iristen dena– erakundearen diru-sarrera arruntan ehuneko 63 da, legeak ezartzen duen ehuneko 110eko legezko muga baino beherago, eta horrek gaur egun zorpetzeko duen ahalmena mugatzen du. 2012an lortutako aurrezki gordinaz baliatuz, 4,8 urte beharko liriateke Udalak gaur egun duen zorrari aurre egiteko.

Bestalde, 2011ko ekainean, diruzaintzako kreditu bat itundu zen, 1,6 milioi eurokoa –mugaeguna 2012ko ekainean zuen–. 2012ko abenduaren 31n osorik kitatu zen.

Laburbilduz, aurreko urtearen alden gastuak eta diru-sarrerak gutxitu dituen arren –ehuneko 23 eta 10, hurrenez hurren– gutxitze hori funtsean inbertsioetan eta haien finantzaketan zentratu dira. 2012an, izaera arrunteko gastuek eta diru-sarrek ehuneko 11 egin zuten behera, bi kasuetan. Magnitude garrantzitsuenei erreparatuta, aurrezkiek behera egin dute, baina ikusi da aurrekontu-saldo ez-finantzarioak eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak hobera egin dutela.

Beste alde batetik, hirigintzaren kudeaketaren ikuspegitik, 1995ean onartutako Lizarrako plangintza ia erabat amaituta dago.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

Honakoa izan da aurrekontuaren betetzea 2006ko ekitalditik hasi eta 2012ra arte (eurotan):

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Azalpena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1 Zuzeneko zergak	3.379.976	3.586.289	3.690.556	3.781.479	3.883.146	3.771.710	3.904.817
2 Zeharkako zergak	1.107.773	920.130	1.879.159	461.378	410.898	297.003	231.238
3 Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	1.279.762	1.462.989	1.671.159	1.904.701	1.428.400	1.476.303	1.423.706
4 Transferentzia arruntak	5.008.495	5.014.879	5.747.332	5.921.668	5.408.169	5.595.835	5.150.195
5 Ondarezko diru-sarrerak	137.926	204.400	253.844	574.304	409.288	387.386	-427.397
6 Inbertsio errealen beste- rentzea	6.096	1.122.592	685.611	1.944.115	2.000	2.000	1.004.338
7 Kapital-transferentziak	889.079	8.098.735	4.536.123	4.828.690	5.993.597	1.546.487	418.319
9 Finantza-pasiboak	5.472.084	0	0	0	0	0	0
Guztira	17.281.191	20.410.014	18.463.784	19.416.335	17.535.498	13.076.724	11.705.217

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Azalpena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1 Langile gastuak	5.135.190	5.183.448	5.851.769	6.008.245	5.941.947	6.061.145	5.390.318
2 Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.374.211	3.492.309	3.837.080	3.695.712	3.556.542	3.413.740	2.943.012
3 Gastu finantzarioak	74.978	132.610	106.624	162.217	114.715	173.643	151.254
4 Transferentzia arruntak	899.794	641.137	890.454	661.906	641.682	575.802	602.168
6 Inbertsio errealak	5.125.360	7.546.614	12.707.358	7.814.311	5.887.038	2.908.101	938.793
7 Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0
8 Finantza-aktiboak	60.500	0	6.944	0	0	0	0
9 Finantza-pasiboak	144.171	172.759	135.875	152.128	246.193	154.849	156.145
Guztira	14.814.204	17.168.877	23.536.104	18.494.519	16.388.117	13.287.280	10.181.690

Taulako datuetatik ondorioztatzen den bezala, Udalaren gastuak 2008ra arte hazten joan ziren, eta hurrengo urteetan, berriz, nabarmen jaitsi dira; 2012koak 2006koak baino txikiagoak izan dira. Adierazi beharra dago 2012ko langile-gastuak 2006koen antzekoak direla eta egindako inbertsioak nabarmen jaitsi direla.

Diru-sarrerei erreparatuta, nabarmena da diru-sarrera arrunten egonkortasuna, salbu eta zeharkako zergen kasuan, zeinek 2012an baitute maila txikiena. 2007tik ez da epe luzeko zorrik hartu.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak betetzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak bi informazio-ohar eman ditu, horietatik bi 2013an, egonkortasunari buruzko araudiaren alderdi zehatz batzuk garatze aldera.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren betetzea kalkulatu da Toki Korporazioei egokitu-tako Kontabilitate Nazionalaren Defizita Kalkulatzeko eskuliburua aplikatuz –eskuliburu hori Estatu-tako Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusiak egindakoa da–. Emaiza hurrengo taulan azaltzen da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Gastu guztiak, I. kapitulutik VII. kapitulura	9.189.242
Diru-sarrera guztiak, I. kapitulutik VII. kapitulura	10.124.478
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	935.236
Aitortzeko dauden fakturengatik doikuntza	-3.965
Zergengatik doikuntzak	-89.375
Finantzatzeko gaitasuna	841.896

Ikusten da Udalak aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko baldintzak bete-tzen dituela.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta betetzean zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran garden-tasuna izateak herritarren funtsezko beharrek bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honen aurreko txostenari erreparatuta –2011ko ekitaldiari buruzkoa da eta 2013ko otsailean argitaratu zen–, hartan adierazi genuen oraindik ere ebazteko daudela, besteak beste, txosten honen VI. atalean berresten den bezala, izaera administratibo eta kontabilitatekoa duten gomendio batzuk, ekitaldi horretakoak eta aurrekoak; haien artean, honakoei buruzkoak daude:

- *Aurrekontu orokorra dagokion ekitaldiaren aurreko urtearen abendua 31 baino lehen osatzea eta behin betiko onartzea, kudeaketarako funtsezko tresna izan dadin.*
- *Oroitidazkian urteko kontuak ulertzen laguntzeko beharrezkoa den informazio guztia sartzea, besteak beste, hirigintzako jardueri buruzko datuak eta Udala sartuta dagoen errekurtsoen zere-rranda.*
- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egitea eta onestea, eta dokumentazioa-ren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta bajen jarraipena egiteko sistema bat ezar-tzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bide-ratzeko aukera emanen duena.*
- *Hirugarren batekin egindako kontratuen indarraldia gehiago kontrolatzea eta dagokion lizita-zio-prozeduraren hasiera behar adinako denboraz planifikatzea.*
- *Udal-sozietateak jarduerarik ez duenez, erakundeak berak existitu behar duen aztertzea.*

V. KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA**V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA**

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Betetzea (%)	Ordainketak	Ordainketen ehunekoa	Ordaintzeko dagoena
1 Langile gastuak	6.537.801	6.411.817	5.390.318	84	5.336.022	99	54.296
2 Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	3.705.351	3.405.718	2.943.012	86	2.493.597	85	449.415
3 Gastu finantzarioak	143.527	164.129	151.254	92	66.069	44	85.184
4 Transferentzia arruntak	675.466	647.449	602.168	93	489.290	80	112.878
6 Inbertsio errealak	4.624	1.378.579	938.793	68	804.384	86	134.409
7 Kapital-transferentziak	-	-	-	-	-	-	-
8 Finantza-aktiboak	-	-	-	-	-	-	-
9 Finantza-pasiboak	163.562	162.282	156.145	96	156.145	100	-
Guztira	11.230.331	12.169.974	10.181.689	84	9.345.506	92	836.183

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betetzea (%)	Kobrantzak	Kobrantzen ehunekoa	Egiteko dauden kobrantzak
1 Zuzeneko zergak	3.898.200	3.521.235	3.904.817	111	3.630.850	93	273.967
2 Zeharkako zergak	459.182	150.000	231.238	154	180.210	78	51.028
3 Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	1.250.079	1.338.137	1.423.706	106	1.188.843	80	234.864
4 Transferentzia arruntak	5.472.972	5.713.875	5.150.195	90	4.649.558	89	500.636
5 Ondarezko diru-sarrerak	149.898	163.365	-427.397	-262	-474.313	111	46.917
6 Inbertsio errealak besterentzea	-	86.882	1.004.338	-	707.879	70	296.459
7 Kapital-transferentziak	-	245.016	418.319	171	336.675	80	81.644
8 Finantza-aktiboak	-	954.776	-	-	-	-	-
9 Finantza-pasiboak	-	-	-	-	-	-	-
Guztira	11.230.331	12.173.286	11.705.217	96%	10.219.702	87	1.485.515

V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	11.705.217	13.076.724
- Aitortutako betebeharrak	-10.720.432	-13.287.279
Aurrekontu-emaiza	984.785	-210.554
Doitzeak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-518.036	-479.868
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	675.163	1.346.412
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	-	280.462
Aurrekontu-emaiza doituia	1.680.655	936.452

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	967.337	1.229.809
(+) Gastuen Diru-sarrerak: egungo ekitaldia	1.485.515	1.089.886
(+) Gastuen Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	3.449.745	3.704.266
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	39.408	511.885
+ Ordainketen itzulketak	-	-
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-4.007.331	-4.076.228
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-	-
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.318.545	2.956.162
(+) Gastuen Gastuena: egungo ekitaldia	836.183	788.617
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	36.108	141.840
+ Diru-sareren itzulketak	-	-
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	446.255	2.025.705
- Aplikatzeko dauden gastuak	-	-
+ Diruzaintzako funts likidoak	2.259.114	2.287.053
+ Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	-	390.765
Diruzaintza- gerakina, guztira	1.907.906	951.465
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa duten gastuak direla-eta	283.267	730.292
Diruzaintza-gerakina, atxikitako gastuak direla-eta	422.675	151.632
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.201.961	69.541

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Aktiboa

Azalpena	2012	2011
A Ibilgetua	71.950.217	73.816.320
C Zirkulatzaila	3.565.893	3.605.187
7 Izakinak	-	-
8 Zordunak	1.019.764	1.248.599
9 Finantza-kontuak	2.486.629	2.297.087
10 Aktiboaren beste kontu batzuk	59.500	59.501
Aktiboa, guztira	75.516.110	77.421.507

Pasiboa

Azalpena	2012	2011
A Funts berekiak	67.398.620	67.760.904
1 Ondare eta erreserbak	38.381.878	39.998.382
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-467.208	-1.616.681
3 Kapitaleko diru-laguntzak	29.483.950	29.379.203
C Epe luzeko hartzekodunak	6.459.965	6.616.110
4 Jasotako gordailuak, prestamenak, maileguak eta fidantzak	6.459.965	6.616.110
D Epe laburreko hartzekodunak	1.657.525	3.044.493
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.354.525	2.963.162
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	16.806	12.094
8 Pasiboaren beste kontu batzuk	286.194	69.237
Pasiboa, guztira	75.516.110	77.421.507

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Azalpena	2012	2011	Azalpena	2012	2011
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galeraren ondoriozko zuzkidura	0	0	39 Izakinen balio-galeraren ondoriozko zuzkidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	544.735	703.363
61 Langile gastuak	5.422.068	6.077.103	71 Ondarearen eta Enpresaren Errenta	409.124	1.094.955
62 Gastu finantzarioak	151.083	173.728	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.956.025	3.065.678
63 Zergak	0	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	733.366	720.607
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	2.944.353	3.408.959			
65 Gizarte prestazioak	8.313	13.694	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	5.419.566	5.767.973
67 Transferentzia arruntak	829.985	723.069	77 Kapitalaren gaineko zergak	466.664	282.429
68 Kapital-transferentziak	31	0	78 Beste diru-sarrera batzuk	356.023	1.082.283
69 Ekitaldiko zuzkidurak amortizazio eta horniduretarako	2.147.848	3.841.045	79 Beren jarduerara aplikatutako hornidurak	0	0
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo hartzekoduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	638.178	1.520.309
Guztira	11.503.681	14.237.597	Guztira	11.503.681	14.237.597

Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Azalpena	2012	2011	Azalpena	2012	2011
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo zorduna)	638.178	1.520.309	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)		
82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo zorduna)			82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo hartzekoduna)	453.351	65
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)			83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)		
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	282.381	97.185	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)		
89 Etekin garbia, guztira			89 Galera garbia, guztira	467.209	1.617.429
Guztira	920.559	1.617.494	Guztira	920.559	1.617.494

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, Kontuen Ganbera honek Udalaren funtzionamenduaz atera dituen ondorio nagusiak eta, haren aburuz, Udalak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako jarraitu beharko lituzkeen aholku nagusiak aipatzen dira.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK.

- 2012an, ez da aurrekontua onetsi, talde politikoak elkarrekin ados jarri ez direlako. Horrenbestez, Alkatetzaren 2011ko abenduaren 9ko Dekretuaren bidez, 2011ko aurrekontua luzatu zen; aurrekontu hori 2010etik luzatutakoa zen.
- Ez da ikusi 2012koak izan eta 2013an kontabilizatutako kantitate handiko fakturarik.
- Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da; ez da gaurkotu, eta Udalaren ondasun guztiak ez daude bertan txertatuta. Hala ere, 2003. urteaz geroztik udal-zerbitzuei atxikitako udal-ondasunen zerrenda bat du, kostuak kalkulatzeko; ondasunen altak zerrenda horretan adierazten dira, eta ez inbentarioan; ez dago kontabilitatearen eta inbentarioaren arteko loturarik. Erabilera publikoko ondasunak, behin erabilera orokorrerako eman ondoren, kontabilitatean ez dira aldatzen erabilera orokorrari emandako ondarearen kontura.
- Udalak aurkeztutako oroitidazkian ez dira jasotzen Gedemelsa sozietate publikoaren urteko kontuak –sozietate horrek ez du jarduerarik–; haren datuak bai jasotzen dira balantze bateratuan. Halaber, aipatutako oroitidazkiak ez dakar daturik hirigintza-jarduketari buruz eta Udala sartuta dagoen errekurtsioen zerrendari buruz.
- Ez dugu aurkitu Udala aipatzeko moduko prozedura judizialean sartuta dagoenik.
- Epe luzerako zorraren amortizazio-egutegia, abenduaren 31n zegoen bezala, ondoko taula honetan agertzen dena da:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2.013	156.648,58	2,42	2,42
2.014	159.752,56	2,47	4,90
2.015	162.932,48	2,52	7,42
2016-2020	1.620.470,91	25,08	32,50
2021-2025	1.362.550,25	21,09	53,60
+2025	2.997.630,54	46,40	100,00
Guztira	6.459.985,31	100,00	

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontu orokorra dagokion ekitaldiaren aurreko urtearen abendua 31 baino lehen osatzea eta behin betiko onartzea, kudeaketarako funtsezko tresna izan dadin.*
- *Oroitidazkian urteko kontuak ulertzen laguntzeko beharrezkoa den informazio guztia sartzea; besteak beste, hirigintzako jarduerari buruzko datuak eta Udala sartuta dagoen errekurtsioen zerrenda.*
- *Udal ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatua egitea eta onestea.*
- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Udal ondasunak –jabari publikokoak, ondarekoak eta herri-ondasunak– eskriturretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.*
- *Ibilgetutik kentzea azpiegituretan eta erabilera orokorrerako ondasunetan egindako inbertsioak, behin haiek egin ondoren.*
- *Kontuak onestea legedi indardunak ezarritako epearen barruan; izan ere, txosten hau idazteko egunean kontuak onetsi gabe zeuden.*

VI.2. LANGILERIA

Langileen gastu bateratuak 5.390.318 euro egiten du; 5.103.411 euro Udalari dagozkio, eta 322.601 euro, berriz, "Julián Romano" Musika Patronatuari. 33.694 euroko bateratze-doikuntza bat erregistratu da. Gastu horiek 2012an sortutako guztiaren ehuneko 53 eta gastu arrunten ehuneko 59 egiten dute.

Udalaren kasuan, 2011ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu honek ehuneko 12 egin du behera, funtsean lan kontratupeko langile gutxiago eduki dituelako ekitaldian zehar. Hona aldaketa horren xehetasunak (eurotan):

Udalaren langile-gastuak	2012	2011	Aldea (%) 2011-2012
10 Goi-karguak	137.506,48	139.287,46	-1
11 Kabineteetako behin-behineko langileak	50.574,53	51.896,18	-2
12 Funtzionarioak	1.979.243,63	2.068.287,14	-4
13 Langile kontratudunak	1.176.222,16	1.642.906,70	-28
16 Enplegua ematen duenaren kontuko kuotak, prestazioak eta gizarte gastuak	1.759.884,18	1.879.427,05	-6
I. kapitulua, guztira	5.103.530,98	5.781.804,53	-12

Langile funtzionarioen ordainsarien kopurua jaisteko arrazoia izan da hutsik geratu diren bi lanpostu ez direla bete.

Udalak ez du 2012rako plantilla organikoa onetsi. Hori dela eta, 2010eko ekitaldikoa da onetsi eta argitaratu den azkeneko plantilla.

Udalaren eta "Julián Romano" Musika Patronatuaren 2010eko ekitaldiko plantilla organikoa 2010eko apirilaren 16an onetsi zuen hasiera batez Udalaren Osoko Bilkurak. Behin betiko onespena, berriz, 2010eko uztailaren 12an argitaratu zen eta honakoek osatzen dute:

Erakundea	Lanpostuak, guztira	Hutsak
Udala	97	28
"Julián Romano" Musika Patronatua	16	-
Guztira	113	28

Datu horietatik ondorioztatzen da bete gabe dauden postuak ehuneko 25 inguru direla, Udalean denak.

2011ko eta 2012ko abenduaren 31n, honakoak dira Udalaren langileak:

Langileria	2011	2012
Izendapen librea	1	1
Funtzionarioak	63	64
Lan-kontratudun finkoak	5	5
Aldi baterako lan-kontratudunak	98	69
Guztira	167	139

Aldi baterako langileen barruan sartzen dira 2011n lantegi-eskolan zeuden 33 langileak (ikasleak) –2012an, berriz, batere ez zegoen–, gizarte enplegu babestuko 16 langileak –2011n, 11 zeuden– eta laneratzearen arloan enplegatutako bakarra ere ez dagoela –2011n, 8 zeuden–. Nabarmentzekoa da ezen, gizarte enplegu babestuko programako 16 enplegatutako Udalak 2012ko abenduaren 31ko plantillan sartu zituen arren, 2012ko abenduaren 28an amaitu zela haiekiko lan-harremana.

Zehazki Udaleko langileak direnak arlo hauetara atxikirik daude:

Barrutiak	2011	2012
Bulegoak	10	11
Polizia	28	27
Obra-brigada	9	7
Lorategietako brigada	3	3
Kultur etxea	2	2
Arlo ekonomikoa	3	3
Gizarte ongizatea	15	12
Emakumea	1	1
Ikastetxe publikoa	3	3
Hirigintza	6	5
Liburutegia	1	1
Museoa	3	2
Kirolak	2	1
Gazteria.	3	3
INFOLAN	1	1
0-3 urteko ikastetxea	12	11
Musika-eskola	1	1
Margolaritza ikasgelak	3	3
Euskara	1	1
Honaino, guztira	107	98
Tailer-eskola	40	-
Oinarrizko errentak	-	7
Enplegu-tailerra (Artxiboa)	1	-
Ostalaritza-tailerra	-	18
Gizarte enplegu babestua	11	16
Gizareratzearen arloko langileak	8	-
Guztira	167	139

“Julián Romano” Musika Patronatuko 2012ko eta 2011ko abenduaren 31ko langileak ez dira aldatu, 16 langile izaten jarraitzen baitute.

Gastu horien lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ordainsariak, oro har, betetako lanposturako erabakitakoak direla, egindako atxikipenak zuzenak direla, eta langileria-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela.

2012ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

Udalak ez zien bere langileei ordaindu 2012ko abenduko aparteko soldata, Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatuta, baina abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean, ordaintzeko betebeharrak aitortu zuen kontzeptu hori dela eta. Betebeharrak hori 2013ko urtarrilean ordaindu zuen.

Foru lege horrek, bere artikuluko bakarrean, xedatzen du 2012an Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileei osagarri pertsonal bat ordainduko zaiela, erosteko ahalmenaren gailu dela eta, 2012ko ekainean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa.

28/2012 Foru Legeak 2013ko urtarrilaren 3an hartu zuen indarra, NAO-n argitaratu eta biharamunean. Horrek zalantza batzuk planteatu ditu 2012rako aurreikusten dituen neurrien baliagarritasunari buruz. Hori dela eta, "2013an foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek hartutako neurrien segurtasun juridikoa bermatzeko", Nafarroako Parlamentuak uztailaren 2ko 25/2013 Foru legea onetsi zuen, zeinak 28/2012 Foru Legea aldatzen baitu, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatzen baitu Nafarroako administrazio publikoek beren langileei ordainezko osagarria pagatzeko. Foru lege horren aurka, uztailaren 30ean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztu da, Konstituzio Auzitegiak onetsia; izan ere, auzitegi horrek haren aplikazioa bertan behar utzi du 2013ko irailaren 14an.

Kontraesanean dagoen araudia eta aurkeztutako errekurtsioak direla eta, jotzen dugu egoera honetarako behin betiko konponbidea instantzia judizial eskudunek hartzen dituzten erabakien menpe egon behar dela.

Bestalde, egiaztatu dira zinegotzietan 2012an sortutako dieten kontzeptuan –osoko bilkuretara, tokiko gobernu batzarrerara, batzordeetara eta abarretara joateagatik– egindako ordainketak, zeinak 2011ko uztailaren 13ko Osoko Bilkuraren erabakiaz arautzen baitira. Izan ere, honakoa xedatzen du erabaki horrek:

- "Ezartzea Lizarrako Udaleko alkate karguak arduraldi osoko araubidea izanen duela, 2011ko uztailaren 11tik aurrerako atzeraeraginekin, eta urteko ordainsaritzat 43.294 euroko kopurua ezartzea. Kopuru hori 14 soldatatan ordainduko da".

- "Zehaztea ez arduraldi osoa, ez partziala ez duten Udaltzako kideek, 2011ko ekainaren 11tik aurrerako atzeraeraginekin, Osoko Bilkuraren saioetara egiazki joateagatik kobratuko dutela, 446,50 euro hain zuzen; xedatzen da kide diren organo kolegiatuen gainerako bileretara egiazki joateagatik, kontzeptu bera dela eta, 89,54 euroko kopuru gordina kobratuko dutela".

- Kopuru horiek "ordainduko dira haien arrazoi diren saioetara egiazki joan izatea egiaztatu ondoren, eta hilerik ordainduko dira. Aldi bakoitzerako, ondoren zehazten dugun muga ezartzen da:

- Udaltzako organo kolegiatuko lehendakariak 583,32 euroko muga izanen du.
- Gainerako zinegotzietan 446,50 euroko muga".

Araudi horren arabera, zinegotzietan 2012an guztira jasotako ordainak 94.212 euro egiten du.

VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetako betebeharrak aitortu bateratuek (2.943.012 euro) ekitaldiko gastu osoen ehuneko 29 egiten dute, eta eragiketa arruntetako gastuen ehuneko 32. 2011. urtearen aldean, ehuneko 14 murriztu dira.

Jaitziera hori zor zaio, batez ere, zenbait kontratatutako prezioetan lortutako merkataritza-asegurua, garbiketa eta argiteria publikoaren mantentzea, bai eta jarduerak eta zerbitzu orokorrak gutxitu izateari ere.

Kapitulu horretako gastu bateratutik, Udaltzari 2.890.927 euro dagozkio, eta "Julián Romano" Musika Patronatuari, berriz, 52.085 euro.

Atal honetako gastuen lagin bat aztertu ondoren egiaztatu da gastu horiek dagokien fakturen bitartez justifikatuta daudela eta behar bezala kontabilizatu direla. Nolanahi ere, hainbat alderdi hobetu litezkeela ikusi da:

- Zenbait kontratuk (aseguruak, salaketen kudeaketa eta zirkulazioko isunak) araudian finkatutako gehieneko epea gainditu dute.

- Laguntza nahiz aholkularitza teknikoaren zerbitzuak emateko gastu batzuk, errepikariak bada ere, halako bolumena dute non zenbatekoaren araberako kontratazio prozedura bat izapidetu beharko bailitzateke.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratu-espeditenteen indarraldiaren gaineko kontrola areagotzea eta garaiz planifikatzea kasuko lizitazio prozeduraren hasiera.*

- *Kalkulatutako balioa aldeztatik balioets daitekeen kasuetan, behar diren kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*

VI.4. INBERTSIOAK

Inbertsioen kapituluko aurrekontu bateratua, 2012rako, 1.378.579 eurokoa izan da.

Egindako inbertsioak, 938.793 euro egiten dutenak, Udalari dagozkio guztiz. Musika Eskolak ez du epe horretan inolako inbertsiorik egin. Ekitaldiko gastu guztien ehuneko 9 egiten dute, eta kapital-eragiketengatik gastuen ehuneko 100. Betetze-maila ehuneko 68koa izan da, eta 2011n egindako inbertsioekin alderatuta, ehuneko 77 jaitzi da.

Honakoa izan da azken hiru ekitaldietan VI. kapituluan aitortutako betebeharraren garbieraren bilakera:

2010	5,9 milioi euro
2011	2,9 milioi euro
2012	0,9 milioi euro

+

2012ko ekitaldian egindako esleipenen lagin bat aztertu dugu:

	Kontratu mota	Prozedura.	Eskaintzak egin dituztenak	Lizitazioaren zenbatekoa (EZik gabe)	Esleipenen zenbatekoa (BEZik gabe)	2012an betetako zenbatekoa eurotan (BEZik gabe)
Lantegi-eskolako I. fasea eta II. fasea erakitzea	Eraikuntza-lana	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	3	297.771,30	289.746,63	289.317,05
Donostiako etorbidean zoladura, euri-uretarakoak eta eus-torma jartzea	Eraikuntza-lana	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	2	254.720,58	227.214,85	22.292,65

Aurreko berrikuspenera eginda eta gastuen lagin bat aztertu ondoren, espeditenteak izapidetzean dagokien kontratazio-araudia, oro har, bete egiten dela ikusi da.

VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012ko ekitaldian aitortutako eskubide bateratuek 11.705.217 euro egiten dute; 60.260 "Julián Romano" Musika Patronatutik heldu dira, bateratzearen doitzeak deskontatu ostean. Betetze-maila ehuneko 96koa izan da; 2011n, ordea, ehuneko 76koa izan zen.

Diru-sarreraren ehuneko 88 eragiketa arruntei dagozkie, eta ehuneko 12 kapital-eragiketeki.

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, aitortutako eskubide bateratuak ehuneko 10 murriztu dira, eta aldaketa hau izan dute, atalez atal (eurotan):

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%)
	2011	2012	2012/2011
1 Zuzeneko zergak	3.771.710	3.904.817	4
2 Zeharkako zergak	297.003	231.238	-22
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.476.303	1.423.706	-4
4 Transferentzia arruntak	5.595.835	5.150.195	-8
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	387.386	-427.397	-210
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	11.528.237	10.282.559	-11
6 Inbertsio errealeen besterentzea	2.000	1.004.339	50.117
7 Kapital-transferentziak	1.546.487	418.319	-73
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 7ra)	1.548.487	1.422.658	-8
Diru-sarrerak guztira	13.076.724	11.705.217	-10

2012an, 2011ko ekitaldiko tasa eta tarifa berak aplikatu dira, salbu eta hiri-lurraren kontribuzioaren kasuan, zeina 2011n 0,2578 izatetik 0,2658 izatera pasa baita.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zerga	2012	2011	Aldea (%) 2012/2011
Lurraren kontribuzioa	2.327.561	2.297.598	1
Ibilgailuak	733.366	720.607	2
Lursailen balioa handitzea	446.664	282.429	58
JEZa	397.226	471.077	-16
EIOZa	231.238	297.003	-22
Guztira	4.136.055	4.068.714	2

Udalaren zergen bidezko diru-sarrerek ehuneko 2 egin dute gora 2011rekin alderatuta. Igoera hori batez ere lurraren balioaren igoerarekin lotutako figurei zor zaie (transakzioak handitu direlako, etxebizitzaren prezioek behera egitearen ondorioz eta banku-bahituren ondorioz). Halaber, nabarmentzekoa da JEZaren jaitsiera, zeinaren arrazoia izan baitira 2011n erregistratu zirela Nafarroako Gobernutik jasotako eskubide aitortuak, aparteko izaera dutenak eta 48.825 euro egiten dutenak –2006tik 2010era bitarteko hobariengatik–, eta, bestetik, sustatzaileengandik jasotako 51.719 euro –2007tik 2010era bitarteko urteei dagozkienak–.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,2658	0,10 - 0,50
Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balioaren igoera		
Gaurkotzearen koefizientea	2,37-2,94	2tik 3,8ra
Karga-tasa	17,10	8-20
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	5	2-5

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu ahal izan dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har.

Nabarmentzekoa da 2012ko ekitaldian Udalarik beste ekitaldi batzuetan EIOZaren kontzeptuan ordaindutakoen itzulketak eskatu zaizkiola –892.457 euro egiten dute–. Eraiki behar ziren baina, azkenean, osorik eraiki ez ziren etxebizitza-sustapenen EIOZari dagozkie, eta bi enpresari ordaindu behar zaizkie. Haiekin, itzulketa-formula bat adostu da, geroratuako ordainketa baten bitartez.

VI.5.1 Inbertsioak besterentzea

Kapitulu honek 86.000 euroko behin betiko aurrekontua dauka, eta milioi bat euroko aurrekontu-betetzea.

2012an, inbertsio errealak saltzearen ondoriozko hiru transakzio izan dira:

- Udalaren jabetzapeko etxebizitza bat, Remontival kalean, enkante bidez saltzea, 96.200 euroko prezioan.
- Udalaren jabetzapeko etxebizitza bat, Sorkunde Garbiaren pasealekuan, enkante bidez saltzea, 96.107 euroko prezioan.
- Garaje plaza batzuk saltzea Koroatze plazan:

Plaza horiek lehenengo lagapen bidez esleitu ziren eta gero saldu egin ziren. Ondoren, eragiketa horren prozesuari buruzko laburpena eginen dugu.

Udalaren Osoko Bilkurak erabaki zuen Koroatze plazaren eta Xabierko San Frantzisko kalearen lur-azpian hiru solairuko aparkaleku publiko bat eraikitzeko obrak esleitzea.

2006an, Udalak bi solairuren –278 plaza– kudeaketa EMPARK sozietateari esleitu zion, zortzi urterako, beste lau urtez luzatzeko aukerarekin. Udalak 139 plaza kudeatzen ditu zuzenean. Horietatik, 2009tik 2011ra 51 plaza esleitu zituen lagapen administratibo gisa, 17.000 euroko prezioan eta 50 urterako.

2012an, Osoko Bilkurak deklaratu zuen Udalaren esku dauden plazak besterengarriak zirela, eta, administrazio-emakiden esleipen-hartzaileek lehentasunezko suskripziorako eskubidea zuten, zuzeneko salmenta erabaki zen.

Salmenta horretara berrogeita hamaika titularretatik berrogei joan ziren, eta udal arkitektoak tasatutako prezioa ordaindu zuten, 20.000 euro.

Nabarmentzekoa da eragiketa horrek 800.000 euroko diru-sarrerak sortu dituela (20.000 euro bider 40), zeinak diru-sarreraren 610 kontuan kontabilizatu baitira (ondasun higiezinaren besterentzea), eta, halaber, diru-sarrera txikiagoa, 680.000 euro, eragin duela administrazio-kontzesioak deuseztatzearen atalean. Zenbateko hori ondare bidezko diru-sarreraren kapituluaren kontabilizatu da. Diru-sarrera txikiago hori dela eta kapituluak saldo negatiboa dauka.

VI.6. HIRIGINTZA

Udalak bere baliabideekin egiten ditu hirigintzako zereginak, Hirigintza Zerbitzuen Arloaren bitartez. Bertako jarduerak egiteko langileak honakoak dira: arkitekto bat (bulegoburua), udal zainzaile bat eta bi administrari ofizial.

Horrez gainera, Udalak hainbat kontratu gauzatuta ditu hirigintzaren alorreko kanpoko aholkularitza-enpresekin (arkitektura, aholkularitza juridikoa, arkeologia eta ingeniari-tza), eta horiek 2012an 40.357 euroko gastua sortu dute guztira.

Indarrean den Hirigintza Plana 1995ean onetsi zen, eta ia erabat amaitu da haren garapena.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak (LFOTU) hiru urteko epea ezarri zuen, 2006ko apirilera bitartekoa, indarrean diren planeamenduak homologatzeko eta egokitzeko. 2007ko maiatzaren 3an Udal Plan Orokorren hasierako onespena. Planaren Jarraipen Batzordeak jasotako alegazioei buruzko txosten teknikoa 2008ko martxoan aurkeztu zen.

Udalaren Osoko Bilkurak, 2009ko maiatzaren 7an, jasotako alegazioak alde onartzea adostu zuen, eta baita udal talde politikoek egindako proposamen jakin batzuk ofizioz sartzea ere. Egindako aldaketek 2007an hasiera batez onetsitako Udalaren Plan Orokorreko egitura organikoaren funtsezko aldaketa zekartela irizita, Udalak 2009ko abenduaren 11n egindako Osoko Bilkuran onetsi zuen espedientea jendaurrean berriz jartzea.

Hasierako onespren horri helegitea aurkeztu zitaion Nafarroako Epaimahai Administratiboaren aurrean, eta hark helegitea aurkeztu zutenei eman zion arrazoia, forma akatsa zela eta. Txosten hau idazteko egunean, oraindik ere ez da plan berria onetsi; horri dagokionez, nabarmendu behar dugu 2007ko urtariletik –hasierako onespeneren data– denbora luzea iragan dela.

Udalak ez du hirigintzako hitzarmenen erregistrorik, ezta artxibategirik ere. Hirigintzako sailletik, 2011ko martxoaren 17an, proposamen bat aurkeztu zen: “Hirigintzako hitzarmenen erregistroa eta artxibategia antolatzeke eta funtzionatzeko arauak”, baina haren edukia oraindik ez da onartu.

Udalak ez du kudeatzen bere lurzoru—ondarea erakundearen gainerako ondasunetatik berezita. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori loturaduna eta berezia izatea, eta era berean, ez da sortu erregistroa.

Bestalde, Hirigintza Zerbitzuen Arloak 2012tik 2013ra bitarteko zehapen-espedienteen zerrenda bat eman digu. 2012ko espedienteak (lau, funtsean 2012ko martxoan eta apirilean lizentziarik gabe egindako obregatik), preskribatuta daude iraungi direlako, zeren eta haiek betearazteko behar ziren prozedurak egin ez direlako.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenei egokitzeko prozesua osatzea eta plan orokor berria behin betiko onestea.*
- *Hirigintzako hitzarmenak erregistratzea eta artxibatzea, indarrean den legediak eskatzen duen dokumentazioarekin.*
- *Hirigintza-jardueri buruzko espedienteen eta zehapen espedienteen barne-kontrol handiagoa egitea sailletik beretik eta Udalaren zerbitzu teknikoetatik.*
- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa eta inbentarioa eratzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik berezita kudeatu behar dela, hirigintzari buruzko legedian jasotako helburuei lotuta dagoelako.*

VI.7. "ENTIDAD PARA LA GESTIÓN DEL DESARROLLO MUNICIPAL Y SOCIOECONÓMICO DE ESTELLA-LIZARRA, SA" (GEDEMELSA) UDAL SOZIETATEA.

"Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarrá, SA" sozietate anonimo unipersonala da, eta Lizarrako Udala da akziodun bakarra; 2006an sortu zen enpresa, 60.500 euroko kapital sozialarekin.

Sozietatearen Batzar Nagusiak, 2013ko azaroaren 25ean, sozietatearen kontuak onesteko akta eskuratu du. Kontuek honakoak jasotzen dituzte: 2011ko egoera-balantzea, galeren eta iragazien kontua eta ondareko aldaketen egoera-orria.

Udal-sozietate horren egoera-balantzea eta galeren eta irabazien kontua, 2012ko abenduaren 31n, honako hauek izan ziren:

Egoera-balantzea

Aktiboa	2012	2011	Ondare garbia eta pasiboa	2012	2011
Aktibo arrunta	61.250	60.960	Ondare garbia	61.138	60.960
Zordunak	103	162	Kapital gastuak	60.500	60.500
Finantza-inbertsioak epe laburrera	59.500	59.500	Borondatezko erreserbak	460	-288
Eskudirua	1.647	1.298	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboa	-	-
			Ekitaldiko emaitza	178	748
			Pasibo korrontea	112	-
			Merkataritzako hartzekodunak	112	-
Aktiboa, guztira	61.250	60.960	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	61.250	60.960

Galeren eta irabazien kontua

	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia
A) Ustiatzearen emaitza	-478	-367
7. Bestelako ustiatze-gastuak	-478	-367
B) Emaitza finantzarioa	709	1.339
b) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	709	1.339
C) Zergen aurretiko emaitzak	231	972
Mozkinen gaineko zerga	-53	-224
Ekitaldiko emaitza	178	748

Diru-sarrerak etorri dira Udalak jarritako kapitalaren epe finkoko ezarpenetik; gastuak, berriz, kontabilitatea eramateko eta urteko kontuak egiteko lansari profesionaletatik eta ordaindu beharreko sozietateen gaineko zergatik.

Gomendatzen dugu udal-sozietatea likidatu eta desegin dadila, jarduerarik ez baitu.

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ko kontseilari delegatuaren eskaera.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 2014ko otsailaren 3ko eskaera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ko kontseilari delegatuak sinatua, "Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroa, S.A. (CNAI)" sozietatearen akzioen % 51 bertako langileei eskualdatzearen gainekoa. Kontuan hartuta Lehendakaritzaren ebazpena, zeinaren bidez arautzen baita Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sortzeari buruzko Foru Legeko 12.1 artikulua aipatzen dituen sozietate-eragiketak baimentzeko jarraitu beharreko prozedura (2014ko urtarrilaren 9ko 3. NPAO), honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ko kontseilari delegatuaren eskaera hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

2. Ekimena Foru Araubide Batzordeari helaraztea, eztabaidatu eta bozkatzeko.

3. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari eta parlamentu-taldeei eledunei jakinaraztea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ko kontseilari delegatuaren eskaera

Lourdes Goicoechea Zubelzuk –adinduna, 15.850.590 W zenbakiko Nortasun Agiria/IFZ duena–, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren izenean eta haren ordezkari gisa (ondorio horietarako helbidea: Sarasate pasealekua, 38 – 2. eskuina, Iruñea, Nafarroa; IFK: B/71018360), eta kontseilari delegatua den aldetik –hala agerida jasota Iruñeko notario Rafael Unceta Morales jaunaren aitzinean 2012ko azaroaren 14an, bere protokolo 1769 zenbakiarekin formalizatutako eskritura publikoan–,

AZALTZEN DU

Ezen, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.1 artikulua betez –artikulu horri abuztuaren 7ko 28/2013 Foru Legeak emandako idazketaren arabera–, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak Nafarroako Parlamentuari baimena eskatu ziola, Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritzaren bidez, "Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroa, S.A." sozietatean korporazio horrek zituen akzioen % 51, gutxienez, eskualdatzeko.

Ezen Foru Araubideko Batzordeak, 2014ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, akzioak saltzeko baimenik ez ematea erabaki zuela.

Ezen Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren borondatea denez adierazitako salmenta-operazio hori egitea, eta gaur egun nahitaezkoa den baimena lortze aldera, kontseilari delegatua naitzen aldetik,

ESKATZEN DUDALA

1. Nafarroako Parlamentuak baimena eman dezan Hizkuntzen Autoikaskuntzako Nafarroako Zentroaren akzioen % 51 eskualdatzeko –zeinak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren jabetzakoak baitira– beren interesa espresuki adierazi duten konpainia horretako langileei, konpainiaren baloraziotik ateratzen den prezioan, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.1 artikulua aplikatuz, artikulu horri abuztuaren 7ko 28/2013 Foru Legeak emandako idazketaren arabera.

2. Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzari igortzea arestiko erabakian aipatutako eskaera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.1 artikulua aplikatuz, artikulu horri abuztuaren 7ko 28/2013 Foru Legeak emandako idazketaren arabera.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Kontseilari delegatua: Lourdes Goicoechea Zubelzu

